

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

**Bigarren Hezkuntzarako
Gida didaktikoa**



UNESCO Etxea, 2022

Egileak: Samuel Fernández eta Eva Quiroga (UNESCO Etxea).

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

AURKIBIDEA

Edukien aurkezpena	4
Helburuak eta gaitasunak.....	6
1. GJHren fitxa: Pobreziarik ez.....	9
2. GJHren fitxa: Goserik ez.....	12
3. GJHren fitxa: Osasuna eta Ongizatea.....	15
4. GJHren fitxa: Kalitatezko Hezkuntza.....	18
5. GJHren fitxa: Genero-berdintasuna	21
6. GJHren fitxa: Ur garbia eta Saneamendua	24
7. GJHren fitxa: Energia irisgarria eta ez-kutsagarria	27
8. GJHren fitxa: Lan duina eta Hazkunde ekonomikoa	30
9. GJHren fitxa: Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura.....	33
10. GJHren fitxa: Desberdintasunak murriztea	36
11. GJHren fitxa: Hiri eta Komunitate jasangarriak.....	39
12. GJHren fitxa: Ekoizpen eta Kontsumo arduratsua	42
13. GJHren fitxa: Klimaren aldeko Ekintza	45
14. GJHren fitxa: Itsaspeko Bizitza.....	48
15. GJHren fitxa: Lehorreko Ekosistemetako Bizitza.....	51
16. GJHren fitxa: Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak.....	54
17. GJHren fitxa: Helburuak lortzeko Itunak.....	57
Erreferentzia bibliografikoak eta intereseko dokumentuak.....	60



EDUKIEN AURKEZPENA

Garapen Jasangarriari buruzko 2015eko Mundu Gailurrean, NBEko Estatu Kideek Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuten, 2030erako pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko. Horretarako, 17 helburu definitu ziren, "Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)" izenekoak. Helburu horiek, era berean, jomuga edo adierazle batzuk dituzte helburuen betetze-maila neurtzeko.

Zehazki, "Kalitatezko Hezkuntzari" buruzko 4. GJHn, honako hau dio 4.7 jomuga espezifikoak: *"Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikokoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez".*

Garapen jasangarrirako hezkuntza beharrezkoa da jasangarritasunean funtsezkoak diren zeharkako gaitasunak lortzeko, bai eta ikaskuntza-helburu kognitiboak, sozioemotionalak eta jokabideen arlokoak betetzeko ere.

Era berean, nazioarteko esparru hori betetzeko, ezinbestekoa da tokikotik lan egitea eta edukiak EAEko hezkuntza-errealitatera egokitzea. Horretarako, UNESCO Etxeak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, Euskadiko ikastetxeetan GJHak lantzeko proposamen pedagogiko hau egin du, gida didaktiko gisa.

Gida didaktiko hau aurrera eramateko erabiliko den metodologia izango da edukiak taldeka lantzea, ikasleek ikaskuntza prozesuaren subjektu aktibo gisa parte hartuz.

Proposatzen diren datuak, kontzeptuak, ekintzak eta gogoetak talde osoarekin batera landu daitezke, edo lantalde txikietan, ondoren talde osoarekin ideiak kontrastatzeko astirik izanez gero.

Edukiek ez dute denborarik ezarrita, eta dinamizatzailak duen ordutegira eta kronogramara egokitu daitezke.

Gainera, UNESCO Etxearen *Zu ere parte zara!* unitate didaktikoa kontsulta daiteke GJHak talde-dinamiken bidez lantzeko material osagarri gisa.

Azkenik, UNESCO Etxeak Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz egindako lehiaketa artistiko baten emaitza dira "Hausnar dezagun elkarrekin" ataleko irudiak. Lehiaketako erakusketa birtualean tamaina handiagoan ikus daitezke irudi horiek.



www.unescoetxea.org/dokumentuak/expo-vitual-ods-eus.htm



www.unescoetxea.org/dokumentuak/expo-vitual-ods-es.html



www.unescoetxea.org/dokumentuak/expo-vitual-ods-en.htm

HELBURUAK ETA GAITASUNAK

Honako hauek dira gida didaktikoaren helburuak:

- Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko ezagutza eta kezka sortzea ikasleen eta hezitzaileen artean.
- Metodologiak, kontzeptuak eta datuak proposatzea EAEko ikastetxeetan garapen jasangarriaren arloekin zerikusia duten gaiak lantzeko.
- Ikasleek Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko ikaskuntza-prozesuan aktiboki parte har dezaten sustatzea.

UNESCOren ekintzetako bat izan da gida bat egitea, 2030 Agendarekiko duen jardunaren esparruan. Gida horrek, ikasleek garapen jasangarrirako hezkuntza-eredu batean garatu behar dituzten oinarriko gaitasunak jasotzeaz gain, gida didaktiko honen oinarri diren 17 GJHetako bakoitzaren ikaskuntza-helburuak deskribatzen ditu.

UNESCOk GJH bakoitzerako deskribatutako ikaskuntza-helburuak hiru bloketan banatu dira:

Ikaskuntza-helburu kognitiboak: GJH bakoitza eta hura betetzeko gainditu beharreko erronkak hobeto ulertzeko beharrezkoak diren ezagutza eta pentsamendu-tresnak.

Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak: ikasleei GJHak sustatzeko helburuarekin elkarlanean aritzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gaitasuna emango dieten gizarte-trebetasunak, bai eta garatzeko aukera emango dieten trebetasunak, balioak, jarrerak eta norbere burua hausnartzeko pizgarriak ere.

Jokabideen arloko ikaskuntza-helburuak: ekintzarako gaitasunak

UNESCOk identifikatutako hezkuntzaren bost zutabeek honako hauek hartzen dituzte barne:

1. Ezagutzen ikastea
2. Egiten ikastea
3. Elkarrekin bizitzen ikastea
4. Izaten ikastea
5. Norbera eta gizartearen eraldatzen ikastea

Era berean, UNESCOk berak honako funtsezko gaitasun hauek zehazten ditu GJH guztiak lortzeko:

- Pentsamendu sistemikorako gaitasuna
- Aurrea hartzeko gaitasuna
- Araugintzarako gaitasuna
- Gaitasun estrategikoa
- Lankidetzarako gaitasuna
- Pentsamendu kritikorako gaitasuna
- Autokontzientziarako gaitasuna
- Arazoak konpontzeko gaitasun integratua

Oinarrizko edo funtsezko gaitasunak, Europako Erkidegoen Batzordearen proposamenaren arabera (2006), honako hauek dira: *"pertsonek guztiak beren burua gauzatzeko eta garatzeko behar dituztenak, bai eta herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta lan egiteko behar dituztenak ere. Hasierako hezkuntza eta prestakuntza amaitzean, helduarorako prestatzeko behar bezainbeste landuta izan behar dituzte gazteek funtsezko gaitasunak, eta, aurrerantzean ere, horiek garatu, mantendu eta eguneratu behar dituzte, etengabeko ikaskuntzaren esparruan".*

EAEko 236/2015 Dekretuaren arabera, honako hauek dira **oinarrizko zeharkako gaitasunak eta diziplinazko gaitasunak**:

ZEHARKAKOAK	DIZIPLINAZKOAK
Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko gaitasuna	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna	Matematikarako gaitasuna
Elkarbizitzarako gaitasuna	Zientziarako gaitasuna
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako gaitasuna	Teknologiarako gaitasuna
Izaten ikasteko gaitasuna	Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
	Arterako gaitasuna
	Gaitasun motorra



Era berean, honako hauek dira **GJHei zuzenean lotutako diziplinazko gaitasunak:**

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA. Gaitasun honen edukiak eta ikaskuntza-helburuak, batez ere Balio etikoak eta Geografia eta Historia irakasgaiak, dira 2030 Agendaren ikaskuntza-helburuetara gehien egokitzen direnak, eta Agendaren jasangarritasunaren gizarte-aldagaiari eta honako GJH hauei erantzuten diete gehienbat:

1. GJH: Pobreziarik ez
2. GJH: Goserik ez
4. GJH. Kalitatezko Hezkuntza
5. GJH: Genero-berdintasuna.
8. GJH: Lan duina eta Hazkunde ekonomikoa
10. GJH: Desberdintasunak murriztea
11. GJH: Hiri eta Komunitate jasangarriak
16. GJH: Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak
17. GJH: Helburuak lortzeko Itunak

ZIENTZIARAKO GAITASUNA. Bai Biologia eta Geologia eta Fisika eta Kimika irakasgaietan, bai Kultura zientifikoa irakasgaietan, eta neurri txikiagoan TEKNOLOGIARAKO GAITASUNAREN edukiak eta helburuak. Horiek bat datoz Agendaren jasangarritasunaren ingurumen- eta ekonomia-aldagaiekin, eta honako GJH hauek egokitzen dira:

3. GJH: Osasuna eta Ongizatea
6. GJH: Ur garbia eta Saneamendua
7. GJH: Energia irisgarria eta ez-kutsagarria
9. GJH: Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura
12. GJH: Ekoizpen eta Kontsumo arduratsua
13. GJH: Klimaren aldeko Ekintza
14. GJH: Itsaspeko Bizitza
15. GJH: Lehorreko Ekosistemetakoko Bizitza





1. helburua: Pobreziarik ez

Pobreziarik ez, mundu osoan eta dituen forma guztietan.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez ditzake dinamizatzailerak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **1. GJH**

Dinamizatzailerak honako eginkizun hauek izango ditu:


1. Ikasleek **pobreziaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. **Definizio** bat proposatzea: "Pobrezia dimentsio anitzeko fenomeno da. Urteetan zehar, kontzeptuak hiru kategoriatan izan du bilakaera: (a) ikuspegi ekonomikotik begiratuta dagoen pobrezia, gutxienezko eskakizunak soilik kontuan hartzen dituena; (b) pobrezia oinarriko premien ikuspegitik begiratuta (hezkuntza, osasuna, etxebizitza...) eta (c) gabezia erlatibotik begiratuta; horrek pertsonaren ikuspegi globalagoa ezartzen du, eta pertsonak garatzeko dituzten gaitasun gutxi gorabehera osoetatik begiratuta definitzen du pobrezia. (Iturria: Hegoa).
3. Ikasleekin identifikatzea pobrezia murrizteari dagokionez betetzen ari ez diren **oinarriko premiak**: elikadura, hezkuntza, etxebizitza, enplegua...
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Bi ikuspegi hauei buruz egingo dugu gogoeta: aberatsak direnak eta aberastu nahi dutenak eta parekidetasun handiagoa nahi dutenak. Zer eragiten du horrek guztiak mundu mailan?

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzailerak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 1. Helburua "Pobreziarik ez": **GJH 1 | Pobreziarik ez**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoe- ta egitera:

- Aukeratu egiten al dugu pobre izatea?
- Nire komunitateko jendea kezkatuta al dago gai honekin?
- Nor da aberatsagoa: diru gehiago duena edo bere bizitzaz gozatzeko denbora gehiago duena?
- Zerk larriagotu dezake pobrezia ekonomikoa? (Ikasleak anima ditzakezu horretan pentsatzera eta zerrenda bat egitera: gerrak/gatazkak, hondamendi naturalak, enplegua galtzea, babes sozialik eza, sostengu ekonomikoa den senide baten heriotza...).
- Zer egiten da gure inguruan pobrezia ekonomikoa murrizteko? Adibideren bat?
- Hezkuntzarako sarbidea pobrezia-egoerarekin lotuta al dago? Zergatik?

Ikus ditzagun xehetasunak

Mundu mailan, pobrezia gorrian bizi diren pertsonen kopurua jaitسي egin zen, 1990ean **% 36** izate-
tik 2015ean **% 10** izatera. Hala ere, aldaketa horren erritmoa moteltzen ari da, eta COVIDen krisiak
arriskuan jarri ditu pobrezia-aren aurka borroka egiten eman diren hainbat hamarkada. Nazio Ba-
tuen Unibertsitateko Garapenerako Ekonomiako Ikerketen Munduko Institutuak argitaratu duen
ikerketa baten arabera, munduko pandemiaren ondorio ekonomikoek pobrezia handitu dezakete
mundu osoan, **500 milioi lagun** gehiagori eragiteraino, hau da, munduko biztanleria osoaren **% 8**
gehiagori. 1990az gerotik, hauxe izango litzateke **30 urtetan** pobrezia mundu osoan handitu den
lehen aldia (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Pertsona ororentzat eta mundu osoan muturreko pobrezia desagerraraztea.
- ✓ Gutxienez erdira jaitea pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren adin guztietako gizo-
nen, emakumeen eta haurren proportzioa.
- ✓ Nazio mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, eta pobreen
eta/edo kalteberenen babes zabala lortzea.
- ✓ Bermatzea pertsona guztiek, bereziki pobreenek eta kalteberenek, eskubide berberak ditzu-
tela baliabide ekonomikoak izateko eta oinarritzko zerbitzuak, lurraren eta beste ondasun ba-
tzuen jabetza eta kontrola izateko, herentziarako, natura-baliabideetarako, teknologia berrie-
tarako eta zerbitzu ekonomikoetarako, mikrofinantzaketa barne.
- ✓ Pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin
eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako
muturreko fenomenoaren eraginpean egotea eta ondoriozko kalteberatasuna murriztea.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Pobrezia erlatiboa** neurtzeko 2019ko ARO-PE tasen arabera, gizarte-arrisku edo -bazterkeriaren estatistika txikienak dituzten erkidegoen barruan dago **Euskadi (% 14,4)**.
- + **Espanian**, 2018tik 2019ra **% 0,8** murriztu da **pobrezia erlatiboaren** arriskuan dagoen biztanleriaren ehunekoa.
- **Euskadin, 10 adingabetik 3 pobrezia-arriskuan** daude (2020).
- **Espanian**, biztanleen **% 21,6 pobrezia-arriskuan** daude (2020). **Espanian, biztanleen % 21,6 pobrezia-arriskuan** azpitik bizi da (% 31 16 urtetik beherakoak, % 21,9 16 urtetik 64 urtera bitartekoak eta % 14,8 65 urtetik gorakoak).

➔ Ekin diezaiogun!

Taldeka pentsatuko dugu gure jarduera-mailatik zer egin dezakegun pobrezia murrizten laguntzeko.

Ikasleak lantaldetan banatuko ditugu, eta talde bakoitzak gaiari buruzko albiste bat bilatu eta aukeratuko du. Talde bakoitzak bere albistea azaldu eta ondorioak atera beharko ditu. Ondorio horiek "Nire ingurunean pobrezia murrizteko dekalogoan" islatuko dira, eta eskolako hormetan zintzilikatuko dira.

Gainera, komunitatean pobrezia murrizteko ekintzak egiten dituen erakunderen batekin harremanetan jar daitezke, eta haren proposamenarekin bat egin dezake eskolak.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





2. helburua: Goserik ez

Gosea desagerraraztea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **2. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **gosearen** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. **Definizio** bat proposatzea: *“Gosea sentrazio fisiko deseroso edo mingarria da, eta elikadura-energia gutxiegia kontsumitzeak eragiten du. Kroniko bihurtzen da pertsonak bizitza normala, aktiboa eta osasungarria izateko behar adina kaloria (elikadura-energia) kontsumitzen ez duenean. Pertsona batek elikadura-segurtasunik eza du, hazkuntza eta garapen normalerako eta bizitza aktibo eta osasungarria izateko behar adina elikagai kaltegabe eta nutritibo eskura ez dituenean. Horren arrazoia izan daiteke elikagairik ez izatea eta/edo elikagaiak eskuratzeko baliabiderik ez izatea”* (Iturria: FAO).
3. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Zergatik uste duzue aukeratu duela egileak elikagai mota hori? Zer sinbolizatzen du? Zer iradokitzen dizue izenburuak?

- Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 2. Helburua “Goserik ez”: **GJH 2 | Goserik ez**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Ba al dago goseak hiltzen ari den pertsonarik zure herrialdean edo komunitatean? Erantzuna baiezkoa bada, badakizue zergatik?
- Zer egiten ari dira zure herrialdean jendea goseak hil ez dadin? Eta munduan?
- Zer hobetuko luke egoera hori? Zer irtenbide aurki daitezke?

Ikus ditzagun xehetasunak

Hainbat hamarkadatan etengabe behera egin ondoren, gosea duten pertsonen kopurua (desnutrizioaren prebalentziaren arabera neurtua) poliki-poliki handitzen hasi zen 2015ean. Gaur egungo kalkuluen arabera, 690 milioi lagun inguruk gosea dute munduan, hau da, munduko biztanleriaren **% 8,9k**, eta horrek esan nahi du **10 milioi** lagun gehiago direla urte batean eta **60 milioi** inguru bost urtean. Mundua ez dago ondo bideratua 2030erako zero gosearen helburua lortzeko. Azken aldiko joerek jarraitzen badute, 2030erako **840 milioi** lagun baino gehiago egongo dira goseak jota (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Gosea desagerraraztea eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta/edo ahultasun-egoeran dauden pertsonak, bularreko haurrak barne, elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.
- ✓ Malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, 5 urtetik beherako haurren hazkundearen atzerapenari eta emaziazioari buruz nazioartean adostutako erronkak lortzea.
- ✓ Nekazaritza-ustiapena eta eskala txikian elikagaien ekoizle direnen diru-sarrerak bikoiztea, bereziki emakume, herri indigena, familiako nekazari, abeltzain eta arrantzaleenak.
- ✓ Elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta lurrazaren eta lurzoruzaren kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika erresilienteak aplikatzea.
- ✓ Hazien, landutako landareen eta granjako eta etxeko animalien eta dagozkien basa-espezieen aniztasun genetikoari eustea, eta baliabide genetikoak eta ezagutza tradizionalak erabiltzeak eta banaketa bidezko eta ekitatiboak dakartzan onurak izateko aukera sustatzea.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Euskadin**, nekazaritza produktiboa eta ja-sangarria egiten den **nekazaritza-azale-raren** proportzioak gora egin du, 2010ean % 0,9 izatetik 2020an % 4,16 izatera.
- + **Espanian**, nekazaritza produktiboa eta ja-sangarria egiten den **nekazaritza-azale-raren** proportzioak gora egin du, 2009an % 6,33 izatetik 2019an % 9,66 izatera.
- **Euskadin, elikagaien banku** batera joaten diren pertsonen kopuruak % 24 egin du gora pandemian.
- **Espanian**, COVID-19aren krisia hasi zenetik, **janariaren eskaria % 50** hazi da Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioan.

➔ Ekin diezaiogun!

Ekintzara pasatzeko, eskola barruan elikagaien bilketa antolatzeko proposatuko diegu ikasleei:

Lehenik eta behin, pentsa dezakete nola inplikatu ikastetxeko ikasleak, irakasleak eta familiak, baita inguruko beste eskola batzuk ere. Ondoren, garrantzitsua da ekintza ondo zabaltzea, parte hartu nahi duten pertsona guztiek bilketa egunaren (edo egunen) berri izan dezaten. Galkorrak ez diren elikagaiak izan beharko dute, entregatu arte denbora gehiago iraun ahal izateko.

Azkenik, garrantzitsua da elikagaien banaketa planifikatzea. Zuen komunitatean lan horretan aritzen den erakunderen batekin jar zaitezke harremanetan, eta indarrak batu!

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





3. helburua:

Osasuna eta Ongizatea

Guztiontzat eta adin guztietan bizitza osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **3. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:


1. Ikasleek **osasunaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. **Definizio** bat proposatzea: *“Osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala da, eta ez gaitzik edo gaixotasunik eza bakarrik. Arrisku komuna da osasuna sustatzeari eta gaixotasunak, batez ere gaixotasun kutsakorrek, kontrolatzeari dagokionez herrialdeen artean dagoen desparekotasuna”*. (Iturria: OME).
3. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Mundu guztiak al du osasun-zerbitzua izateko aukera? Eta aukera hori duten pertsonen artean, batzuentzat beste batzuentzat baino zailagoa dela uste al duzue?

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 3. Helburua “Osasuna eta Ongizatea”: [GJH 3 | Osasuna eta Ongizatea](#)



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Zer behar dugu osasuntsu egoteko? (bizimodu osasungarria, higieena, txertoak, etab.)
- Uste duzu mundu guztiak osasun-zerbitzua izateko aukera berdina dituela gure herrialdean? Zure iritziz zerk eragin dezake aukera berdina ez izate hori? Eta zer egiten ari da pertsona guztiek osasun-zerbitzua izan dezaten?
- Nola eragiten du gure bizitzan osasun-zerbitzu publikoa eta doakoa izateak ala ez izateak?

Ikus ditzagun xehetasunak

Pandemiaren aurretik, aurrerapen handiak lortu ziren milioika pertsonaren osasuna hobetzeko. Zehazki, aurrerapen handi horiek lortu ziren bizi-itxaropena handitzean eta haurren eta amen heriotza-tasarekin lotutako heriotza-kausa arrunt batzuk murriztean. Hala ere, ahalegin handiagoa egin behar da gaixotasun asko erabat desagerrarazteko eta osasun-arazo ugari aurre egiteko, bai konstanteak bai sortzen ari direnak. Osasun-sistemak modu eraginkorragoan finantzatu, saneamendua eta higieena hobetuz eta mediku-zerbitzua izateko aukerak handituz aurrerapen nabarmenak lortu ahal izango dira milioika pertsonaren bizitzak salbatzen laguntzeko. Osasun-larrialdiak, COVID-19tik etorritakoa kasu, mundu-mailako arriskua dira, eta prestakuntza funtsezkoa dela erakutsi dute (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Munduko amen heriotza-tasa 70etik behera murriztea, bizirik jaiotako 100.000 haurreko.
- ✓ Jaioberrien eta 5 urtetik beherako umeen heriotza saihegarriak amaitzea.
- ✓ HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
- ✓ Herena murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- ✓ Mendekotasuna sortzen duten substantzien abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea.
- ✓ Erdira murriztea munduan trafiko-istripuen ondorioz eragindako heriotzen eta lesioen kopurua.
- ✓ Sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetara sarbide unibertsala bermatzea.
- ✓ Osasun-sistemaren estaldura unibertsala lortzea.
- ✓ Nabarmen jaitea produktu kimiko arriskutsuen eta airearen, uraren eta luraren kutsaduraren ondorioz eragindako heriotzen eta gaixotasunen kopurua.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + Euskadin osasun-langile espezializatuek ardatutako **erditzeen proportzioa % 99,97**koa da 2020an.
- + **Amen heriotza-tasa % 37** jaitsi da munduan 2000. urtetik. **Espainian, 1,88 da** bizirik jaio-tako **100.000** hurreko (2018ko datuak).
- **Suizidioaren ondoriozko heriotza-tasa** handitu egin da **Euskadin**, eta 100.000 biztanleko 8,36ra iritsi da 2020an. **13'02** gizonen artean eta **3'97** emakumeen artean, 100.000 biztanleko.
- 15 eta 29 urte bitarteko **Espainiako gazteen** ia erdiek (**% 48,9**) uste dute **osasun mentaleko arazoren** bat izan dutela.

➔ Ekin diezaiogun!

Azter itzazu eskolako instalazioak ikasleekin batera, osasuna eta ongizatea nola bermatzen diren ikusteko: ur puntuetarako sarbidea eskuak garbitzeko eta ura edateko, erizaintza, elikadura osasun-garria eskolako jangelan... Jaso ezazu ahalik eta informazio gehien, eta egin ezazu sentsibilizazio-kanpaina bat eskolan, aurkitu dugunari balioa emateko: zer gertatuko litzateke horrelakorik ez bagenu?

Gainera, ikasleei proposa dakieke pentsatzea arazo horiek nola hobetu eskolan, eta ikastetxeko zuzendaritzari hobekuntza-proposamen formala egin.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





4. helburua:

Kalitatezko Hezkuntza

Hezkuntza barneratzailea, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako bizi osorako ikaskuntza-aukerak sustatzea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **4. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **hezkuntzaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: **Hezkuntza** ikaskuntzak trukatzeko prozesua da, eta bizitza osoan zehar ematen da hainbat esparru formal, ez-formal eta informaletatik. Gainera, hezkuntza oinarritzko giza eskubidea da duintasuna eta garapena bermatzeko, errealitateak aldatzeko eta desparekotasunak sortzen laguntzen duten aurreiritziak, estereotipoak eta diskriminazio-bideak deseraikitze gaitasuna baitu. Azken finean, gizarteak eraldatzeko daukagun tresna ahaltsuenetako bat da hezkuntza, GJH guztiak betetzeko duen eragin biderkatzaileari esker.
3. Ikasleekin identifikatzea hezkuntzaren kalitateari dagokionez betetzen ari ez diren **oinarritzko premiak**: trebetasun egokiak garatzea, genero-berdintasuna, eskola-azpiegitura, ekipamendua, materialak eta hezkuntza-baliabideak, beka edo irakasleak.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJHk duten lotura helburu honekin, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu?

Gogoeta egitea hezkuntzak nazioen, talde etnikoen eta erlijiosoen arteko elkar ulertzea eta bakea garatzeko tresna garrantzitsu gisa duen balioari buruz, mundu osoan tolerantzia eta adiskidetasuna sustatu ahal izateko.

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 4. Helburua "Kalitatezko Hezkuntza": [GJH 4 | Kalitatezko Hezkuntza](#)



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Helburu honek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu modu proaktiboan GJH hau betetzen?
- Zuen ustez, hezkuntzarako sarbide ekitatiboa eta bidezkoa al dago mundu osoan?
- Zer esan nahi du bizialdi osoko ikaskuntza kontzeptuak? Garrantzitsua al da? Zergatik?
- Eztabaida ezazue baieztapen honen inguruan: "Hezkuntza, eskubide gisa, funtsezko tresna da mundu osoan pobrezia murrizteko".

Ikus ditzagun xehetasunak

COVID-19ak 20 urteko lorpenak ezabatu zituen hezkuntzaren arloan. **101 milioi** baino gehiago edo 1. mailatik 8. maila arteko haurren **% 9** irakurtzeko gaitasunaren gutxieneko mailetatik behera erori zen 2020an. Parte-hartzeak gora egin zuen eskolaurreko irakaskuntza antolatuan, 2010ean **% 65** izatetik **% 73** izatera pasa baitzen 2019an. Denboraldi berean, **% 82**tik **% 85**era igo zen lehen hezkuntzaren amaiera-tasa, eta bigarren hezkuntzaren kasuan, berriz, **% 46**tik **% 53**ra. Hala ere, herrialde askotan oinarrizko eskola-azpiegiturak falta dira. Gutxien garatutako herrialdeetan, eskolen **% 56**k ez dute edateko urik, **% 33**k ez dute elektrizitaterik eta **% 40**k ez dute eskuak garbitzeko ekipamendu egokirik. Bestalde, eskolara joaten ez diren neskatok arrisku handiagoa dute indarkeria, haurren ezkontza, haurren lana, adingabeen salerosketa eta haurdunaldi goiztiarra izateko. Hala eta guztiz ere, herrialdeen **% 42**k bakarrik zituen laguntza-neurriak 2021. urtearen hasieran neskatok eskolara itzul zitezen. (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Pertsona guztiek, generoa, arraza, jatorria edo kalteberatasuna edozein dela ere, kalitatezko hezkuntza izango dute, garapen jasangarrian modu baketsuan eta ekitatiboan parte hartzeko aukera emango diona.
- ✓ Neskek eta mutilek berdin jasoko dituzte doako haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza, eraginkorra eta egokia, kalitatezko eta arrazoizko lanbide-heziketara eta hirugarren mailako prestakuntzara igaro ahal izateko, lan munduan parte hartze egokia, kualifikatua eta produktiboa izateko presta daitezen.
- ✓ Beken kopurua handituta hobetu egingo da goi-mailako hezkuntzarako sarbidea.
- ✓ Gazte guztiek eta heldu gehienek jakingo dute irakurtzen, idazten eta zenbakiak erabiltzen.
- ✓ Ikasteko lekuak ingurune seguruak eta solidarioak izango dira behar dituzten guztientzat.
- ✓ Nazioarteko lankidetzaren bidez irakasle kualifikatuak izango dira munduko hezkuntza beharrei erantzun ahal izateko.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?


- + **Euskadin**, aurreko lau asteetan ikasketak edo prestakuntza egin dituen 15 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren **parekotasun**-indizea positiboa da **emakumeen eta gizonen artean (106.39)**.
- + **Espanian**, oro har, aurreko 12 hilabeteetan **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT)** gaitasunak eskuratu dituzten helduen (16-74 urte) ehuneko aigo egin da, 2015ean **% 65,20** izatetik 2020an **% 65,20** izatera.
- **Euskadin**, 10.000 biztanletik beherako eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi diren kontuan hartuta, **desparekotasuna** dago aurreko lau asteetan prestakuntza edo ikasketak egin dituzten 15-65 urte bitarteko biztanleen artean (**98.53**).
- **Espanian**, 2015 eta 2018/19 artean, jaitsi egin da **i) irakurketan eta ii) matematikan** gutxieneko gaitasun-maila lortu duten haurren eta nerabeen proportzioa, bai a) lehen hezkuntzaren amaieran, bai b) behe-mailako bigarren hezkuntzaren amaieran.

➔ Ekin diezaiogun!

Banatu itzazu ikasleak 3 edo 4 laguneko taldeetan, eta eskatu talde bakoitzari pertsona baten silueta marrazteko eta ondo hezitako pertsona bakoitzak izan ditzakeen ezaugarrietan pentsatzeko. Ikasleek pertsonaren siluetaren barruan idatzi behar dituzte. Ondoren, eska iezaezu zirkulu handi bat marrazteko mundua irudikatzeko. Ikasleek eztabaidatu behar dute zer ezaugarri dituen ondo hezitako pertsona batek eta ezaugarri horiek idatzi egin behar dituzte. Irudiak eta sinboloak ere gehi diezazkiokete marrazkiari.

Galdetu ikasleei ea badakiten zer den Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI) eta zertan datzan. Oinarrizko hezkuntza bermatua al dago? Zergatik uste dute badirela horrelako zentroak? Animatu itzazu ikertzera eta, egokitzen hartuz gero, egin bisita HHI zentro batera. Informazio gehiago: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/informa-zaitetz/hezkuntza/-/beste-prestakuntza-eskaintza/helduen-hezkuntza/>

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





5. helburua: Genero-berdintasuna

Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskatok guztiak ahaldunduz.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **5. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:


1. Ikasleek **genero-berdintasunaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: **Genero-berdintasuna** baliabideak eta aukerak eskuratzeko berdintasunaren egoera da, generoa edozein dela ere. **“Egiazko berdintasuna** baliokidetasun-erlazioa da, pertsonak balio bera baitute, eta, horregatik, berdina dira arauetan onar daitezkeen neurri politiko eta ekintza sozial eta ekonomikoaren aurrean, boterea eta baliabide eta onura ekonomikoak eta sozialak kontrolatzea eta eskuratzeko barne. Oraindik ere beharrezkoa da kultura-, ekonomia-, politika- eta gizarte-mailetan egiazko berdintasuna eragozten duten mugak eta oztopoak aldatzea” (Emakunde, 2019).
3. Ikasleekin identifikatzea genero-berdintasunari dagokionez zein **oinarritzko premia** ez diren betetzen ari. Eskubide, baliabide, aukera eta babes berberak al dituzte emakumeek, gizonek eta pertsona ez-binarioek? Honelako kontzeptuak aztertzea: mikromatxismoak, soldata-arraila, kristalezko sabaia/zoru itsaskorra, zaintzaren transnacionalizazioa, pobreziaren feminizazioa, genero-indarkeria, ahaldunduz-ikuspegia, boterearen matrizea...
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJHk duten lotura helburu honekin, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu? Berdintasunaren eta ekitatearen arteko aldeak eta eguneroko bizitzan duten benetako esanahiaz gogoeta egin. Nola eragiten digute mikromatxismoek? Ados al daude esatean ahaldunduzeko eta genero-estereotipoak deseraikitzekeko prozesua gerta daitekeela hezkuntzaren bidez?

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 5. Helburua “Genero-berdintasuna”:
GJH 5 | Genero-berdintasuna



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruko iritziak eman eta go-goeta egitera:

Zer iruditu zaizu bideoa? Zergatik uste duzue gertatzen dela hori? Zein da desparekotasun horren jatorria?

Helburu horrek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu modu proaktiboan GJH hau betetzen?

Mundu mailan, ekitatiboa al da neskatoen eta mutikoen ehunekoa eskoletan? Zenbat eskolatzen bora dute neskatoek eta mutikoek? Zenbat urterekin uzten dute eskola neskatoek eta mutikoek? Eta zer gertatzen da LGBTBI+ komunitatearekin?

Ikus ditzagun xehetasunak

2020an **95** herrialdeetan bildutako datuen arabera, **erdiak baino gehiagok** ez dute emakumeentzako kuotarik parlamentu nazionaletan. **% 63k** ez du adostasunaren printzipioan oinarritutako bor txaketari buruzko legerik. Emakumeei enplegu edo industria jakin batzuetan jarduteko eragozpenak jartzen zaizkie **ia erdietan**. Kalkuluen arabera, 15 urteko edo gehiagoko 736 milioi emakumek eta neskatok indarkeria fisikoa edo sexuala jasan dute bikotekide baten eskuetan, edo sexu-indarkeria bikotea ez den pertsona batek eragindakoa, bizitzan behin gutxienez. Hemendik 2030era, COVID-19a dela-eta zerbitzuak etetearen ondorioz, emakumeen mutilazio genitalaren (EMG) beste **2 milioi** kasu gertatuko direla aurreikusi da. Etxean seme-alabekin bizi diren emakumeek adierazi dute astean **31 ordu** inguru ematen dituztela haurrak zaintzen, batez beste pandemiaren aurretik baino **5 ordu** gehiago. Mundu osoan, parlamentuko **lau eserlekuetatik bat** betetzen dute emakumeek. Tokiko eztabaida-organoetan hautaturiko aulkien **% 36** dituzte emakumeek. Diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan, gizonak baino **234 milioi** emakume gutxiago sartzen dira Interneten telefono mugikorraren bidez. Datuak eskuragarri dituzten herrialdeen eta eremuen % 19k soilik dute sistema integrala genero-lehentasunei ematen zaien aurrekontu-erantzuna gainbegiratzeko. (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Emakumeak eta neskatoak herritar berdin gisa ikusi eta tratatuko dira, indarkeriarik eta esplotaziorik gabe.
- ✓ Emakumeen eta neskatoen ezkontza behartua eta mutilazio genitala desagertu izango dira.
- ✓ Ordaindu gabeko etxeko lana balioetsiko da, zerbitzu publikoek lagunduko dute eta familiek modu ekitatiboan partekatuko dute.
- ✓ Emakumeek erabat eta baldintza berdinetan hartuko dute parte erabaki politikoetan/ekonomikoetan.
- ✓ Emakumeek jabetzak izateko eta beren dirua kontrolatzeko eskubide berberak izango dituzte.
- ✓ Osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak errespetatuko dira.
- ✓ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) onura ekarriko die eta ahaldundu egingo dituzte emakumeak.
- ✓ Lege berri eta indartuek emakumeei eta neskei lagunduko diete ahalduntzen eta berdinak izaten.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Genero Berdintasunaren Indizea** handitu egin da **Euskadin**, 2010ean **68,80** izatetik 2017an **71,10** izatera pasa baita. Zuzendaritza-karguetan ari diren emakumeen proportzioa handitu egin da Euskadin 2010 eta 2020 artean, **% 28,77**tik **% 28,68**ra pasa baita.
- + **Espainia** osoan, aurreko 12 hilabeteetan egungo bikotekideak eragindako kontrol-**indarkeria psikologikoa** jasan duten 16 urteko edo gehiagoko emakumeen eta nesken proportzioa **% 9,5**etik **% 7,1**era jaitsi da 2014. urtean.
- **Euskadin**, batez besteko egun batean **etxean eta familian emandako denborak** nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du emakumeen kasuan (**3 ordu eta 29 minutu**) gizonen kasuan baino (**1 ordu eta 49 minutu**). **Euskadin goi-zuzendaritzako karguetan** dauden emakumeen proportzioa murriztu egin da 2010 (**% 32,53**) eta 2020 (**% 29,70**) artean.
- **Espainian**, azken urtean egungo bikotekidearen eskutik **sexu-indarkeria** jasan duten 16 urtetik gorako emakumeen eta nesken proportzioa **% 1**etik **% 1,1**era igo da 2014 eta 2019 artean.

➔ Ekin diezaiogun!

Banatu itzazu ikasleak 5-6 taldetan, eta eskatu erreferente feministak eta LGTBI+ komunitatekoak bilatzeko. Eska iezaezu hainbat irakasgaitan (historia, literatura, biologia, etab.) lan egin duten emakumeak edo LGTBI+ pertsonak identifikatzeko. Ondoren eskatu bat aukeratzeko eta ikaskideei aurkezpen txiki bat egiteko. Era berean, erreferente diren pertsona horiei buruzko irudiak eta informazioa eskegi ditzakete eskolan, ezagutzera emateko.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



6. helburua:

Ur garbia eta Saneamendua

Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **6. GJH**

1. Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:
2. Ikasleek **urari** buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
3. Ur garbiaren edo edateko uraren **definizio** bat proposatzea: *“Ur osasungarria eta erraz eskuratzeko modukoa garrantzitsua da osasun publikorako, edateko, etxean erabiltzeko, elikagaiak ekoizteko edo aisialdirako erabil dadin. Ur-hornidura, saneamendua eta ur-baliabideen kudeaketa hobetzeak herrialdeen hazkunde ekonomikoa bultzatzen dezake eta, neurri handi batean, pobrezia murrizten lagundu. 2010ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak esplizituki onartu zuen ur-hornidurarako eta saneamendurako giza eskubidea”* (Iturria: OME).
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Ura behar duten ikasleen eguneroko zereginen zerrenda egitea proposa dezakezu, ura eskuratzeko premia kontzientziatzeko.

- ▶ Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 6. Helburua “Ur garbia eta Saneamendua”: **GJH 6 | Ur garbia eta Saneamendua**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

Ura eskuratzeko arazoak al ditugu gure herrialdean? Zure ustez, munduko leku batzuetan zergatik da mugatua ur garbia eskuratzeko aukera?

Zure ustez, zer eragin izan dezake edateko urik ez izateak pertsonen bizitzan?

Zer egin dezakete pertsonak uraren kudeaketa hobetzeko? Eta gobernuek?

Ikus ditzagun xehetasunak

Edateko ura eta saneamendua eskuratzeko bidean nabarmen aurrera egitea lortu bada ere, milaka milioi lagunek (batez ere landa-eremuetan) oraindik ez dituzte oinarrizko zerbitzu horiek. Mundu osoan, hiru lagunetik batek ez du edateko ur osasungarririk; bost lagunetik bik ez dute eskuak urez eta xaboiz garbitzeko oinarrizko instalaziorik, eta **673 milioi** lagunek baino gehiagok aire zabalean husten dute sabela oraindik ere. COVID-19aren pandemiak agerian utzi du saneamendua, higieak eta ur garbia eskura izateak berebiziko garrantzia dutela gaixotasunak prebenitzeko eta haiek geldiarazteko. *La higiene de manos salva vidas*. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, eskuak garbitzea da patogenoen hedapena murrizteko eta infekzioak prebenitzeko (COVID-19aren birusa barne) egin daitekeen ekintza eraginkorrenetako bat. Hala ere, milaka milioi lagunek ez dute ur osasungarria eta saneamendua izateko aukerarik, eta funtsak ez dira nahikoak (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Edateko ura izateko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian.
- ✓ Saneamendu- eta higie-zerbitzu egokiak eta bidezkoak eskuragarri izatea lortzea.
- ✓ Uraren kalitatea hobetzea, eta, horretarako, kutsadura murriztea, isurketarik ez egitea eta produktu kimiko eta material arriskutsuen isurpena minimizatzea.
- ✓ Nabarmen areagotzea baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra, eta bermatzea ur gezaren erauzketaren eta horniduraren jasangarritasuna, ur-eskasiari aurre egiteko.
- ✓ Baliabide hidrikoen kudeaketa integratua ezartzea maila guztietan.
- ✓ Babestea eta berrezartzea urarekin lotura duten ekosistemak, basoak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta lakuak barne.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Lankidetzako eta uraren arloko Euskadiko erakundeek** indarrak batzea erabaki dute, uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzako programa bat abian jartzeko Erdialdeko Amerikan, El Salvador eta Costaricako erakundeekin elkarlanean.
- + **Espanian, kalitate oneko ur-masaren** proportzioa **% 89**koa da egoera kimiko ona duten azaleko uren eta lurpeko uren kasuan (2019).
- **Euskadin** berrogei udalerritan bizi da biztanleen ia **% 80**, eta, datozen urteetan, **muturreko klima-gertakariak** (uholdeak, itsas mailaren igoera eta bero-boladak) eragingo diete udalerriri horiei.
- **Espania** da **estres hidrikorako*** joera handiena duen Europako herrialdea. Azken urteotan, etxeko erabilerari dagokionez, ur gehien kontsumitzen duen herrialdeetako bat da biztanleko eta eguneko.

**Uraren eskasia edo estres hidrikoa da ur gezaren baliabideak murriztea, aldi jakin batean eskuragarri dagoen ur kantitatea baino handiagoa delako eskaria edo erabiltzeko egokia ez den kalitatea duelako. (Iturria: Idensity)*


➔ Ekin diezaiogun!

Ikasleei proposatuko diegu ura erabili behar den eguneroko zereginetan pentsatzeko (hortzak garbitu, edan, janaria prestatu, platerak garbitu, arropa garbitu, landareak ureztatu...).

Horretarako, 4-5 laguneko taldeetan bilduko dira ikasleak, eta zeregin horiek sailkatuko dituzte, edateko ura behar dutenak alde batetik eta behar ez dutenak bestetik. Ondoren, zeregin horietako bakoitzean ura ahalik eta hobekien nola erabili hausnartu beharko dute (hortzak edo eskuak garbitzen ditudan bitartean txorrota itxi, edan behar dudan ura bota edalontzira, bainatu beharrean dutxa azkar bat hartu...).

Azkenik, irtenbide horiek eskolan zabaltzea proposa diezaiekegu. Kartelak egin ditzakete eskolako txorrotetan jartzeko, uraren erabilerari buruz kontzientziatzeko.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





7. helburua:

Energia irisgarria eta ez-kutsagarria

Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa eskuratzeko aukera izan dezagula bermatzea.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez dizake dinamizatzailerak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **7. GJH**

Dinamizatzailerak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **energiaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. Energia berriztagarriaren **definizio** bat proposatzea: *“Energia berriztagarriak energia-iturri garbiak, agortezinak eta gero eta lehiakorragoak dira. Erregai fosilen aldean desberdinak dira, batez ere, duten dibertsitateagatik, ugaritasunagatik eta planetako edozein tokitan aprobetxatu ahal izateagatik, baina, batez ere, ez dutelako berotegi-efektuko gasik sortzen –klima-aldaketaren eragileak-, ez eta isuri kutsatzailerik ere”* (Iturria: Acciona).
3. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Energia eolikoaz eta kutsadurarik gabeko giro garbiaren garrantziaz hitz egin dezakezue. Kutsadura handia duen hiri baten eta kutsadura txikia duen hiri baten arteko aldeei buruz ere hitz egin dezakezue.



Laguntza-material gisa, dinamizatzailerak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 7. Helburua “Energia irisgarria eta ez-kutsagarria”: **GJH 7 | Energia irisgarria eta ez-kutsagarria**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Ezagutzen al dituzue energia berriztagarrien mota desberdinak? Zuen ustez, energia fosilak ordezka ditzakete?
- Ezagutzen al duzue zuen ingurunean energia berriztagarriko azpiegiturarik? Nolakoa da? Zer energia-mota sortzen du?
- Zer egin dezakegu pertsona bakoitzak gure mailatik energia aurrezteko? Eta gobernuek, zer egin beharko lukete?

Ikus ditzagun xehetasunak

Mundua aurrera doa 7. helburua lortzeko bidean, eta badira energia jasangarriago eta eskuragarriago bihurtzen ari dela pentsarazten diguten zantzu pozgarriak. Herrialde pobreenetan azkartzen hasi da elektrizitatea eskuratzeko bidea, energia-eraginkortasunak hobetzen jarraitzen du eta energia berriztagarriak emaitza bikainak lortzen ari dira sektore elektrikoan. Hala eta guztiz ere, arreta handiagoa jarri behar da sukaldeko erregai garbi eta seguruak eta **3.000 milioi laguntzako** teknologiak eskuratzeko hobekuntzetan, energia berriztagarriaren erabilera sektore elektrikotik haratago zabaltzeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikan elektrifikazioa areagotzeko (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.
- ✓ Nabarmen areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean.
- ✓ Energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren munduko tasa bikoiztea.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?


- + **Euskadi** eta Virginiako Estatua (AEB) elkar-lanean arituko dira **energia berriztagarriei aplikatutako teknologiak** garatzen eta ezartzen, baita energia-eraginkortasunean eta -metaketan ere.
- + **Espanian**, **energia eolikoa** lehen elektrizitate-iturria da jada (2021).
- 2020an energia berriztagarrien kuotak goia jo bazuen ere **Euskadin (% 16'2)**, Espainiako batez bestekotik urrun dago oraindik ere ehuneko hori (**% 44**).
- **Espainia**, eguzki-ordu gehien dituen Europako herrialdeetako bat izan arren, azkena da **eguzki-autokontsumoan, % 0,1eko** tasarekin etxeetako instalazioetan.

➔ Ekin diezaiogun!

Helburu honekin ekintzara pasatzeko, eskolan energia berriztagarriak erabiltzen dituen gune bat identifikatzea eta bisitatzea proposatuko dugu (halakorik bada). Halakorik ez badago, ikasleekin landu dezakegu nola hobetu litekeen energiaren erabilera eskolan (argiak itzali, txorrotak itxi...). Beste aukera bat da eskolatik kanpoko espazio bat identifikatzea eta irtenaldi bat proposatzea, zer energia berriztagarri mota erabiltzen den eta nola funtzionatzen duen jakiteko.

Azkenik, ikasgelaren barruan lan egiteko, 4-5 laguneko taldeak egitea proposatzen dugu, eta talde bakoitzak energia berriztagarri mota bat aukeratzea. Identifikatu ondoren, gaiari buruzko informazioa bilatuko dute, jardunbide egokiak (tokikoak eta nazioartekoak) eta, azkenik, gainerako ikaslideei azalduko diete, guztiek jakin dezaten talde bakoitzak zein energia-mota aukeratu duen.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



8. helburua:

Lan duina eta Hazkunde ekonomikoa

Hazkunde ekonomiko inklusiboa eta jasangarria, enplegua eta guztiontzako lan duina sustatzea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **8. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **lan duinaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: "Pertsonak beren lan-bizitzan dituzten xedekak laburbiltzen ditu **lan duinak**. Honako aukera hauek dakartza ondorioz: lan produktiboa izatea eta bidezko diru-sarrerak jasotzea, lantokian segurtasuna eta familientzako gizarte-babesa, garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko aukera hobekak, pertsonak beren kezkak adierazteko, antolatze eta beren bizitzari eragiten dieten erabakietan parte hartze askatasuna eta emakume eta gizon guztiontzako aukera- eta tratu-berdintasuna."
3. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu? Bultza itzazu gogoeta egitera lan duinak gizarte zuzen, bidezko eta inklusiboa lortzeko duen garrantziaz. Zein dira helburu hori lortzeko kontuan hartu beharreko funtsezko faktoreak? Genero-rolak eta estereotipoak buruzko eztabaida ere susta dezakezu.

- Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 8. Helburua "Lan duina eta Hazkunde ekonomikoa": **GJH 8 | Lan duina eta Hazkunde ekonomikoa**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Uste duzu munduan badirela lan egitera behartuta dauden haurrak? Adibideak? Hala bada, zergatik uste duzu gertatzen dela hori?
- Zure ustez, dibertsitate funtzionala duten pertsonak zailtasun handiagoak al dituzte lan duina lortzeko? Adibideak?
- Zure ustez, emakumeek zergatik dituzte lana lortzeko zailtasun handiagoak?
- Zure ustez, zergatik daude hainbeste gazte langabezia?

Ikus ditzagun xehetasunak

Pandemiaren ondorioz, lanaldi osoko **255 milioi** lanpostu galdu ziren, 2007-2009ko munduko finantza-krisian galdutako lanpostuen kopurua baino **4** aldiz gehiago. Ekonomia informaleko **600 milioi langile**, gizarte-segurantzaren sarerik gabe, nabarmen kaltetu zituen pandemiak. Susperaldi ekonomikoa abian da, baina herrialde askok ez dute hazkunde ekonomikoa pandemiaren aurreko mailetara berreskuratuko **2022 edo 2023** arte. Nabarmen jaitsi da nazioarteko turisten etorrera; izan ere, **1.500 milioi** izan ziren 2019an, eta **381 milioi** 2020an. Nazioarteko turismoa ez da 2019ko mailara itzuliko 4 urte barru arte. Pandemiaren ondorioz, gora egingo du hezkuntzarik, enplegurik edo prestakuntzarik gabeko gazteen kopuruak. 2019an, emakume gazteen **% 31,1**ek eta gizon gazteen **% 14**k ez zuten lanik, ikasketarik edo gaikuntzarik. Emakumeek gizonek baino enplegu-galera handiagoak izan zituzten pandemian. Emakume okupatuen kopurua **54 milioi** jaitsi zen, eta **45 milioi** erabat utzi zuten lan-indarra (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Lan-aukera seguruak eta sortzaileak eskaintzea, pertsonen garapena bultzatzeko.
- ✓ Jarduera ekonomikoetan gure baliabide naturalen errespetua eta babes bermatzea.
- ✓ Lan duina eta lan-ingurune seguruak sustatzea guztiontzat: gizonak eta emakumeak, gazteak, desgaitasuna duten pertsonak eta langile etorkinak.
- ✓ Lanik gabeko gazteen kopurua murriztea, prestakuntzarako aukerak handituz.
- ✓ Lan behartua eta haurren lana prebenitzea eta amaitzea bere modu guztietan.
- ✓ Mundu mailan neurriak hartzea gazteei lan gehiago emateko.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Euskadin, lanordu bakoitzeko batez besteko diru-sarrera 17,40 €-tik (2010ean) 19,52 €-ra (2020an) igo da.**
- + Ikasten ari ez diren, lanik ez duten eta pres-takuntzarik jasotzen ez duten 15 eta 24 urte bitarteko gazteen proportzioa jaitsi egin zen **Euskadin**, 2010ean **% 10,91** izatetik 2020an **% 8,47** izatera pasa baitzen.
- + **Espainian, desgaitasunen bat** duten pertsonen langabezia-tasa jaitsi egin zen, 2015ean **% 31** izatetik 2019an **% 23,9** izatera pasa baitzen.
- 2019an, **Euskadin, emakume** baten lanor-du bakoitzeko **batez besteko diru-sarrera (18,46 €)** nabarmen txikiagoa zen gizon ba-ten lanordu bakoitzeko batez besteko diru-sarrera baino **(20,40 €)**.
- **Gazteen langabezia**-tasa (16-29 urte) **% 18,38tik % 22,07ra** igo da **Euskadin** 2010-2020 urteetan.
- **Espainian**, oro har, urteko biztanleko **Barne Produktu Gordina (BPGd) % 11,30** jaitsi zen 2020an.


➔ Ekin diezaiogun!

Eman ikasleei denbora hausnartzeko eta beren buruak etorkizunean proiektatzeko. Zer-nolako lana irudikatzen dute? Lan duina izango ote da? Zergatik? Zer egingo dute hori lortzeko? Eskatu klasearen aurrean hitz egin nahi dutenei argudioak emateko, antolatu ezazu eztabaida ikasgela osoarekin.

Jarraian, bana itzazu ikasleak 4-5 ikasleko taldeetan, honako gai honi buruz gogoeta egiteko: Zenbat diru irabazi beharko dut bizi ahal izateko? Horretarako, pertsona batek hilean zenbat diru behar duen kalkulatu beharko dute ikasleek, kontuan hartuta pertsona hori bakarrik bizi dela, astean 5 egunez lan egiten duela, lanegunetan eguneko menua jaten duela, garraio publikoan mugitzen dela eta alokairuko etxebizitza batean bizi dela. Diru-kopuru hori gutxi gorabehera kalkulatzeko, honako web-orria erabil dezakete: <https://www.expatistan.com/es/costo-de-vida/pais/espana>. Taldeek beren gogoetak elkarren artean partekatzen dituzten bitartean, talderen batek besteek baino gastu gehiago kontuan hartu dituen ikus daiteke (adibidez, elektrizitate- eta ur-gastuak, menua jateaz aparte janaria, aisialdia, edo arropa). Honako galdera hauek planteatu daitezke:

- Bizitzeko nahikoa al da Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LGS)?
- Lanbide arteko gutxieneko soldata kobratuko bazenu, dirua aurreztu, oportetara joan eta/edo auto bat erosi ahal izango zenuke?
- Etxebizitza hutsik egongo balitz, nola erosiko zenituzke altzariak eta etxetresna elektrikoak?

UNESCO Etxearen “Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan – Zu ere parte zara!” unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



9. helburua:

Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **9. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:


1. Ikasleek **industriaren, berrikuntzaren** eta **azpiegituraren** kontzeptuei buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. **Definizioak** proposatzea: *“Lehengaiak azken kontsumorako edo tarteko kontsumorako produktu bihurtzea helburu duen sektorea da industria. Ekonomian azpiegitura da herrialde edo gizarte batek bere ekoizpen-jarduerak garatzeko duen ondare fisikoa eta materiala. Berrikuntza da lehendik dauden elementu, ideia edo protokoloak aldatzen dituen prozesua, horiek hobetuz edo merkatuan eragin onuragarria izango duten berriak sortuz”* (Iturria: Economipedia).
3. Ikasleekin identifikatzea industriari, berrikuntzari eta azpiegiturari dagokienez betetzen ez diren **oinarrizko premiak**: industriak enpleguan eta barne-produktu gordinean duen parte-hartzea, ikerketa zientifikoa, garapen teknologikoa edo industria-dibertsifikazioa.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Zer abantaila ditu berrikuntzak eta sormena sustatzeak?

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 9. Helburua “Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura”: **GJH 9 | Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Nola eragiten digu guri helburu honek?
- Zer aldaketa egin daitezke gure inguruan ingurumenarekiko azpiegitura atseginagoa eraikitzeko?
- Ezagutzen al genuen industriak garapen jasangarrirako duen garrantzia?

Ikus ditzagun xehetasunak

Industrializazio inklusibo eta jasangarriak, berrikuntzarekin eta azpiegiturarekin batera, aska ditzake enplegua eta diru-sarrerak sortzen dituzten indar ekonomiko dinamikoak eta lehiakorak. Horiek funtsezko eginkizuna dute teknologia berriak sartzeko eta sustatzeko, nazioarteko merkataritza errazteko eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko. Berrikuntza eta aurrerapen teknologikoa funtsezkoak dira ekonomia- eta ingurumen-erronketarako irtenbide jasangarriak aurkitzeko, hala nola energia-eraginkortasuna eta baliabideak areagotzea. Mundu mailan, ikerketan eta garapenean (I+G) egindako inbertsioa, **BPGd-ren** ehuneko gisa, igo egin zen 2000n **% 1,5** izatetik 2015ean **% 1,7** izatera, eta ia maila berean jarraitu zuen 2017an. Hala ere, garapen-bidean dauden eskualdeetan **% 1** baino txikiagoa izan zen.

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea.
- ✓ Industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea, eta nabarmen areagotzea industriak enpleguari eta barne-produktu gordinari egiten dien ekarpena.
- ✓ Industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan.
- ✓ Azpiegitura modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da.
- ✓ Ikerketa zientifikoa handitzea eta herrialde guztietako industria-sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + 2021eko lehen 10 hilabeteetan, **industria-jarduera % 10,9** hazi zen **Euskadin**, eta azken hamarkadan, Euskadik bikoiztu egin du bere zientzia-ekoizpena.
- + **Espainiak 15.572 milioi euro inbertitu zituen I+Gn** 2019an, bere maximo historikoa.
- **Euskadin**, industria txikiei dagokien **industria-sektorearen** guztizko **balio erantsiaren** proportzioa murriztu egin da 2010etik (**% 25,79**) 2018ra (**% 22,97**).
- **Espainian**, industria txikiei dagokien industria-sektorearen guztizko balio erantsiaren proportzioa murriztu egin da 2015etik (**% 15,92**) 2018ra (**% 13,53**).

➔ Ekin diezaiogun!

Egin dezagun jasangarritasun-plana eskolarako!

Ikasleak taldeka banatuko ditugu, eskolaren eraginkortasuna hobetzen laguntzeko ideiak sortuz: zuhaitz/berdegune gehiago landatu, eskolan elektrizitatea erabiltzeko (eta hobetzeko aholkuak), uraren erabilera... izan gaitezen sortzaile.

Jarduera honetarako, beste helburu batzuetan egindako lana erabil daiteke, hala nola 6. GJHn edo 7. GJHn.

Idea guztiekin, eskolarako jasangarritasun-plana sortzeko eskatuko diogu taldeari, eta gero eskolako zuzendaritzari aurkeztu ahal izango diote.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





10. helburua:

Desberdintasunak murriztea

Herrialdeen barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea.

Saioa hasteko, *Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez ditzake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **10. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:


1. Ikasleek **desberdintasunaren** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. **Definizio** bat proposatzea: "Desberdintasuna ez da soilik aberastasuna, ondare garbia, edo diru-sarrerak, soldata gordina. *Bizi-itxaropena, pertsonen osasun-zerbitzuak eskura izateko duten erraztasuna, kalitateko hezkuntza edo zerbitzu publikoak ere barne har ditzake. Desberdintasunak daude generoen eta gizarte-taldearen artean. Gainera, desberdintasunak handitu eta iraun egiten du, talde batzuek eragin handiagoa baitute legegintza-prozesuan, eta horrek eragotzi egiten die beste talde batzuei sistemak euren beharrei erantzun diezaien. Horren ondorioz, politikak desorekatzen dira eta prozesu demokratikoa ahuldu egiten da"* (Iturria: Nazio Batuak).
3. Ikasleekin identifikatzea desberdintasunak murrizteari dagokionez betetzen ari ez diren **oinarizko premiak**: diskriminaziozko legeak, politikak eta jardunbideak ezabatzea, eta pertsona guztiak barne hartzea, edozein dela ere sexua, jatorria, etnia, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein eratakoa.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Munduko diskriminazioari buruz hausnartzea. Zuen ustez, badira zenbait talde beren inguruan kalteturik daudenak adinagatik, sexuagatik, jatorriagatik, egoera ekonomikoagatik eta abarregatik?

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 10. Helburua "Desberdintasunak murriztea": [GJH 10 | Desberdintasunak murriztea](#)



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Helburu honek guztioi eragiten al digu?
- Zer egin dezakegu helburu hau lortzen laguntzeko? Nola berma dezakegu aukera-berdintasuna eta nola desagerraraz dezakegu diskriminazioa? Hainbat eskalatan pentsa dezakegu hori: eskolaren barruan, nire hirian, Euskadin, munduan...
- Uste duzu faktore ekonomikoa dela garrantzitsuena helburu hori lortzeko, edo badira beste faktore garrantzitsu batzuk ere?
- Hezkuntzarako sarbidea pobrezia-egoerarekin lotuta al dago? Zergatik?

Ikus ditzagun xehetasunak

Etengabeko kezka-iturri da herrialdeen barruko eta herrialdeen arteko desberdintasuna. Zenbait dimentsiotan desberdintasuna murrizteko zantzu positibo batzuk badaude ere, hala nola herrialde batzuetan diru-sarreraren desberdintasuna murriztea eta diru-sarrera gutxiko herrialdeei mese-de egiten dien lehentasunezko merkataritza-estatusa, desberdintasunak badaude oraindik ere. Alderdi ekonomikoan, COVID-19aren pandemiak nabarmen handitu du munduko langabezia, eta zorrotz murriztu ditu langileen diru-sarrerak. Osasun-sistema eskasagoak dituzten herrialdeetan eta krisi humanitarioei aurre egin behar dieten herrialdeetan ere desberdintasunak areagotzen ari dira biztanle kalteberentzat. Errefuxiatuak eta migratzaileak, bai eta herri indigenak, zaharrak, desgaitasunen bat duten pertsonak eta haurrak ere, baztertuak izateko arriskuan daude bereziki. Gainera, talde kalteberenei zuzendutako gorroto-diskurtsoa handitzen ari da (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Pixkanaka lortzea biztanleriaren % 40 pobreenaren diru-sarrerak handitzea eta kopuru horietan jarraitzea.
- ✓ Pertsona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea eta sustatzea.
- ✓ Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere.
- ✓ Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.
- ✓ Erakundeen eta munduko finantza-merkatuen araudia eta zaintza hobetzea.
- ✓ Garapen-bidean dauden herrialdeen ordezkartza eta esku-hartze handiagoa bermatzea nazioarteko ekonomia- eta finantza-erakundeek hartutako erabakietan.
- ✓ Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, arautua eta arduratsua ahalbidetzea, baita migrazio-politika planifikatuak eta ondo kudeatuak aplikatuta ere.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?


- + **Euskadik** Estatuko **gizarte-bazterketaren** zifra txikienetako bat du eta laugarren tokian dago.
- + 2020an, **ELGAK** jakinarazi zuen LGTBI+ komunitateko pertsonen eskubideak eta integrazioa hobekien babesten dituen erakunde-ko bosgarren herrialdea dela **Espainia**.
- Datu positiboaren aldean, Espainiako autonomia-erkidego desberdinenetako bat da Euskadi. **Baztertutako biztanleak**, beste autonomia-erkidego batzuetan baino gutxiago izan arren, gero eta urrunago daude gainerako biztanleetatik.
- **Espainian**, biztanle aberatsenen **% 10**ak diru-sarreraren **% 34,5** eramaten du, eta baliabide gutxien dituzten herritarren **% 50**ak, berriz, **% 21** baino ez du.

➔ Ekin diezaiogun!

Ekintzara pasatzeko, sentsibilizazio-dinamika bat planteatuko dugu taldearekin:

1. Hainbat pertsonaia banatuko ditugu ikasleen artean (lanik gabeko emakume gaztea, multinazional bateko bazkide nagusia den emakume heldua, gutxieneko pentsioa duen adineko gizona, gazte ekintzailea, lan bila dabilen pertsona ez binarioa, aniztasun funtzionala eta aldi baterako enplegua dituen pertsona heldua...).
2. Ilara horizontalean jarriko dira eta egoera batzuk planteatuko ditugu, eta ikasle bakoitzak erabakiko du bere pertsonaia horietan parte hartuko duen ala ez (lagunekin bidaia batera joan, egunero berogailua jarri, Gabonetan zerbait berezia afaldu...).
3. Beren pertsonaiek parte hartu ahal izatean, pauso bat aurrera egingo dute, gehien aurreratu dutenen eta gutxien aurreratu dutenen artean ezberdintasun handia ikusi arte.
4. Orduan, haxe planteatuko diogu taldeari: guztiok eskubide berberak baditugu, zergatik dago aurrera egiten duen jendea eta aurrera egiten ez duena? Planteatzen ditugun egoera horiek eskubideak ala pribilegioak dira?
5. Bukatzeko, garrantzitsua da dinamikan sor daitezkeen aurreiritziekin eta estereotipoekin lan egitea, haietaz jabetuz. Era berean, garrantzitsua da esatea gure bizitzako uneren batean denok egon gaitezkeela atzean geratu diren pertsonaia horietakoren baten antzeko egoeretan.
6. Azkenik, ezagutzera eman daitezke Agendaren lema, "inor atzean ez uztea", eta helburu honekin duen lotura.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



11. helburua:

Hiri eta Komunitate jasangarriak

Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izatea lortzea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez ditzake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **11. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **hiri eta komunitate jasangarrien** inguruan duten ezagutza-maila ebaluatzea eta zer esanahi ematen dioten aztertzea.
2. **Definizio** bat proposatzea: *"Hiri jasangarri perfektua izango litzateke energetikoki bere burua hornitzen duena eta, gainera, hondakinak alferrik galtzen ez dituen, baizik eta lehengai berri gisa berrerabiltzen dituen. Premisa hori ahalik eta urrutien eraman behar da: hondakinen kudeaketa, garraio jasangarriagoa, berdeguneen mantentzea, baliabide naturalen kudeaketa eta erabilera (ura, elektrizitatea...), biztanleen aisialdirako eta kulturarako guneak... Bere burua eraikitzen duen hiria da, printzipio ekologiko eta hezitzaileetan eta berdintasunean oinarrituta"* (Iturria: Acciona).
3. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zuen ustez, zer transmititu nahi du egileak irudi honekin? Hausnar dezagun hiri jasangarria zer izan litekeen, eta zer aldatu beharko genukeen hori lortzeko.

- Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 11. Helburua "Hiri eta Komunitate jasangarriak": **GJH 11 | Hiri eta Komunitate jasangarriak**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Zure ustez, zein dira zure hiriko lehentasunak? Zein izan beharko lirateke?
- Zure ustez, zer onura ekar ditzake hiri jasangarri batean bizitzeak? (sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, ekonomikoak...).
- Nola lagun dezakegu gure komunitatea jasangarriagoa izaten?

Ikus ditzagun xehetasunak

Mundua gero eta hiritartuago dago. 2007az geroztik, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi izan da, eta kopuru hori % 60raino igotzea espero da 2030erako. Hiriak eta metro-poli-eremuak hazkunde ekonomikoaren gune neuralgikoak dira, munduko BPGd-ren % 60 inguru sortzen baitute. Hala ere, munduko karbono-emisioen % 70 inguru eta baliabideen erabileraren % 60 baino gehiago eragiten dute. Urbanizazio azkarraren ondorioz, gero eta biztanle gehiago daude auzo pobreetan, azpiegitura eta zerbitzu desegokiekin eta gainkargatuekin (adibidez, hondakinen bilketa eta ur- eta saneamendu-sistemak, errepideak eta garraioa), eta hori okertzen ari da airearen kutsadura eta kontrolatu gabeko hiri-hazkundera (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.
- ✓ Garraio-sistema segurua, arrazoizkoa, irisgarria eta jasangarria izatea eta bide-segurtasuna handitzea, batez ere garraio publikoa areagotuz.
- ✓ Hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan.
- ✓ Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.
- ✓ Nabarmen murriztea hondamendiek eragindako heriotza-kopurua.
- ✓ Hirietan biztanleko ingurumen inpaktu negatiboa murriztea.
- ✓ Berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Euskadik** bat egin du Europako Itun Berdearekin, eta bere ibilbide-orria proposatu du etorkizun jasangarriagoa lortzeko: **Basque Green Deal**. Energia berriztagarrien, mugikortasun jasangarriaren, biodibertsitatea babestearen eta kutsadura murriztearen aldeko apustua egiten du eredu horrek.
- + **Espainia** bereziki nabarmentzen da **garraio publikoa erabiltzeko erraztasunari** dago-kionez, biztanleen % 10ek bakarrik adierazi baitu zailtasunak dituela, Jasangarritasunaren Behatokiaren arabera (2018).
- **Euskadin**, ekoiztako guztiaren % 3,7ko gale-
ra eragiten du **lehen sektoreak**, eta elikadu-
raren industriak, berriz, % 5,36koa, Euskadi-
ko elikadura-kateko elikagaien "xahutzearen"
irismenari buruzko ikerketa baten arabera.
- **Espainiako birziklatze-tasa % 29,7**ra bai-
no ez zen iritsi 2016an, eta horrek EBren
azken-aurreko postuan jarri gaitu.

➔ Ekin diezaiogun!

Ekintzara pasatzeko, 4-5 laguneko taldeetan banatuko ditugu ikasleak, hiri jasangarri ideala nolakoa izango litzatekeen imajina dezaten. Beren ideiak gainerako taldeei azalduko dizkiete, eta guztien artean hiri bakarra sortuko dute. Talde bakoitzak hiriko hainbat alderditan (dendak, ostalaritza eta jatetxeak, turismoa, etxebizitzak, eskola, garraioa...) pentsatzea ere proposa dezakegu, gero denen artean partekatzeko. Azkenik, ikasleek hiri jasangarri ideal horren maketa bat sortuko dute, eskolan erakusteko.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





12. helburua:

Ekoizpen eta Kontsumo arduratsua

Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriak bermatzea.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **12. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:


1. Ikasleek **ekoizpenaren eta kontsumo arduratsuaren** kontzeptuei buruz duten ezagutzamaila ebaluatzea, zer ekartzen dieten gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: "**Kontsumo jasangarria** da oinarrizko beharrei erantzuten dieten eta bizi-kalitate hobea ematen duten zerbitzuak eta produktuak erabiltzea, baliabide naturalen eta material toxikoen erabilera minimizatuz, bai eta zerbitzuaren edo produktuaren bizizikloan zehar hondakinen eta kutsatzaileen emisioak ere, etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan ez jartzeko".
3. Ikasleekin identifikatzea zein diren kontsumoari eta produkzioari begira betetzen ari ez diren **oinarrizko neurriak**: baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra, alferrik galtzen diren elikagaien kopurua murriztea, hondakin gutxiago sortzea edo turismo jasangarriaz kontzientziatzea.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu? Bultza itzazu beren familien barruan dituzten kontsumo-patroiei buruz hausnartzera, bai eta inguruko jarduera eta sektore ekonomiko nagusien ekoizpen-patroiei buruz ere. Jasangarriak direla uste al dute?

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 12. Helburua "Ekoizpen eta Kontsumo arduratsua": **GJH 12 | Ekoizpen eta Kontsumo arduratsua**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoe-ta egitera:

- Helburu honek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu nahita helburu hau betetzen?
- Nola murriztu dezakegu elikagaiak alferrrik galtzea?
- Nola sor ditzakegu hondakin gutxiago (prebentzioa/murrizketa/birziklatzea/berrerabiltzea)?
- Nola konbentzitu ditzakegu gure komunitateetako beste pertsonak erregai fosil gutxiago era-biltzearen abantailez, ingurumenean eragin txikiagoa izateko?

Ikus ditzagun xehetasunak

Munduko "aztarna materiala" **% 70** handitu zen 2000 eta 2017 urteen artean. Plastikozko **milioi bat** botila erosten dira minutu oro. Behin bakarrik erabiltzeko plastikozko **5 bilioi** poltsa botatzen dira urtero. Garapen-bidean dauden herrialdeek ustiatu gabeko energia berriztagarrien potentzial handia dute oraindik. Energia elektriko berriztagarriaren ahalmen berria **880 wat biztanleko** da herrialde garatuetan, garapen-bidean dauden herrialdeetan baino **4 aldiz** gehiago (**219 wat biz-tanleko**). Hondakin elektronikoak ugaritzen ari dira, eta ez dira modu arduratsuan ezabatzen. Pertsona bakoitzak **7,3 kilogramo** hondakin elektroniko inguru sortu zituen 2019an, baina **1,7 kilogramo** baino ez ziren birziklatu. Aurrerapenak aurrerapen, erregai fosilentzako dirulagunt-zek arriskuan jartzen jarraitzen dute Parisko Akordioa eta Agenda 2030 betetzea. 2019an **432.000 milioi** dolar eman ziren, hau da, 2018an baino **% 21** gutxiago. 2020an, 700 politika eta ezarpen-jarduera eman ziren Kontsumo eta Ekoizpen Jasangarriko Modalitateei buruzko Programen Hamar urteko Esparruaren arabera (**83** herrialdetakoak eta Europar Batasunekoak) (Iturria: Nazio Batuak).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Herrialdeek neurri eraginkorrak hartuak izango dituzte kontsumo/ekoizpen jasangarriari buruzko programak aplikatzeko.
- ✓ Baliabide naturalak modu jasangarrian kudeatuko dira.
- ✓ Txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrrik galtzen diren elikagaien kopurua erdira murriztu izango da eta horniketa-katearen zati batzuetan murriztu egingo da.
- ✓ Prebentzioak, saihesteak, birziklatzeak eta berrerabiltzeak nabarmen murriztu izango dituzte gainerako hondakinak.
- ✓ Produktu kimikoen erabilera eta hondakin guztiak ondo kudeatuta egongo dira, airean, uretan eta lurzoruan askoz ere eragin txikiagoa izango dute, eta, hala, giza osasuna eta inguru-mena hobetuko dira.
- ✓ Enpresak, nazioartekoak barne, jasangarriak izatera eta horren berri ematera animatuko dira.
- ✓ Gobernuek jasangarritasunean oinarritutako erosketa-politikak izango dituzte.
- ✓ Mundu guztiak izango du informazioa eta kontzientzia, naturarekin harmonian bizitzeko.
- ✓ Garapen bidean dauden herrialdeek informazio zientifikoa eta teknologikoa jasoko dute, in-gurumena errespetatuz ekoitzi eta kontsumitu ahal izateko.
- ✓ Turismo jasangarriari lanpostuak sortuko dira kontrol-tresnen laguntzarekin.
- ✓ Merkatuak desorekatzen eta dirua xahutzea eragiten duten erregai fosilentzako dirulaguntzak aldatu egingo dira kaltetutako komunitateak babesteko.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Materialen kontsumoa** jaitsi egin da **Euskadin**, urtean biztanleko **14,2 tona** izatetik 2010ean, **13,04 tona** izatera 2018an.
- + **Euskadin** sortutako eta tratatutako hondakinen guztizkoarekiko **birziklatutako udal hondakinen** proportzioa igo egin da, 2010ean **% 24,74** izatetik 2018an **% 41,46** izatera.
- + **Espanian**, isuritako hondakin arriskutsuen proportzioa jaitsi egin da, 2015ean **% 24,9** izatetik 2019an **% 22,5** izatera.
- **Espanian, biztanle bakoitzeko materialen** urteko kontsumoak gora egin du, 2015ean **8,8 tona** izatetik 2019an **9,0 tona** izatera.
- **Arabian eta Gipuzkoan isuritako hondakin arriskutsuen** proportzioa handitu egin da 2010-2018 urteetan.
- **Gipuzkoan, birziklatutako hondakin arriskutsuen** proportzioa jaitsi egin da, 2010ean **% 76,91** izatetik 2018an **% 58,87** izatera.

➔ Ekin diezaiogun!

Anima itzazu ikasleak hipotetikoki pentsatzera. Kalkuluen arabera, munduko biztanle-kopurua gaur egungo 7.000 milioietatik 9.000-11.000 milioira igoko da 2050ean. Zer gertatuko da are jende gehiago dagoenean? Nola alda ditzakegu gauzak eskari gero eta handiagoari lekua egiteko eta planetan pertsona berriak hartzeko? Taldeka, eska iezaiezu pentsatzeko honako hiru agertoki hauek zer eragin izango luketen baliabide finituen erabileran: (1) Munduko biztanle-kopurua igotzea; (2) Munduko biztanle-kopurua egonkor mantentzea; (3) Munduko biztanle-kopurua jaitea.

Sartu zure ikasgelan ondo etiketatutako, mantendutako eta zaindutako birziklatzeko edukiontziak. Ikas ezazu non dagoen zure herriko zaborteia, nola kudeatzen den gaur egun eta nola lagun diezaiogezun Udalari.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA



13. helburua:

Klimaren aldeko Ekintza

Premiazko neurriak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez ditzake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **13. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **klima-aldaketari** buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: **Klima aldaketa** *temperaturen eta eredu klimatikoen epe luzeko aldaketei esaten zaie. XIX. mendeaz geroztik, giza jarduerak izan dira klima-aldaketaren eragile nagusiak, batez ere erregai fosilak erre direlako, hala nola ikatza, petrolioia eta gasa (Iturria: Nazio Batuak).*
3. Ikasleekin identifikatzea klimaren aldeko ekintzari dagokionez zein **oinarrizko premia** ez diren betetzen ari: klima-aldaketari buruzko politikak planifikatzeko eta lantzeko gaitasunak garatzeko mekanismoak sustatzea, klimarekin zerikusia duten hondamendi naturalak arintzeko eta haietara egokitzeko gaitasuna, eta klima-aldaketaren kausei eta ondorioei buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



🗣️ Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu?

Bultza itzazu gizakiak eragindako klima-aldaketaren kausei eta ondorioei buruz hausnartzera, bereziki beren komunitateen eta bizi diren inguruneen testuinguruan.

- ▶️ Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 13. Helburua "Klimaren aldeko Ekintza": **GJH 13 | Klimaren aldeko Ekintza**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Helburu honek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu nahita helburu hau betetzen?
- Honako hauek dira klima-aldaketak izango duen eraginari buruzko iragarpenetako batzuk: es-tres termikoa, baso-suteak areagotzea, lehortea, uholdeak, uztak galtzea, migrazioa eta itsa-soaren maila igotzea. Zein dira zure eremuko eragin garrantzitsuenak eta zein neurri praktiko har daitezke horiek prebenitzeko edo murrizteko?
- Eztabaidatu eta garatu honako baieztapen hau: *"Munduko pobreenak eta kalteberenak izango dira klima-aldaketak gehien eragingo dituenak"*.
- Klima-aldaketari buruzko hezkuntzak ezagutza, trebetasun eta jarrera garrantzitsuak sortzen ditu eragin horiek arintzeari eta egokitzeari ekiteko, eta komunitateen erresilientzia hobetzen du. Nola lagun dezakete gure komunitateek karbonoaren alorrean eraginkorrak diren ekonomia eta gizartea lortzen?

Ikus ditzagun xehetasunak

Emisioak murrizteko presazko neurriak hartu ezean, berotze globala **1,5 °C**-tik gorakoa izango da hemendik **2040**ra. Sarritan aintzakotzat hartzen ez badira ere, emakumeen ahotsak eta ikuspegiak funtsezkoak dira klima-erronkei eta ingurumen-jasangarritasunari erantzuteko. Etengabe aurrera egiten jarraitzen du krisi klimatikoak. 2020an, industriaurreko aldiaren erreferentzia baino **1,2 °C** handiagoa zen munduko batez besteko tenperatura, eta horrek, zoritxarrez, urrunduko egiten gaitu Parisko Akordioaren **1,5 °C**-ko jomugatik. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak handitzeak ekonomiak karbono-neutraltasunerantz aldatzea eskatzen du. Klimarako finantzaketa **% 10** handitu zen 2015-2016tik 2017-2018ra, eta urteko batez bestekoa **48.700 milioi dolarrekoa** izan zen. Garapen-bidean dauden **154 herrialdeetatik 25** klimara egokitzeko plan nazionalak formulatzen eta ezartzen ari dira. Lehentasunezko arloak honako hauek dira: elikagaien segurtasuna eta ekoizpena, lehorreko eta hezeguneetako ekosistemak, ur gezako baliabideak, giza osasuna eta sektore ekonomikoak eta funtsezko zerbitzuak.

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Herrialde guztiek areagotu izango dute klimarekin lotutako arriskuei eta hondamendiei aurre egiteko gaitasuna.
- ✓ Politika eta plan nazionalak klima-aldaketari aurre egiteko neurriak jasoko dituzte.
- ✓ Hezkuntza eta kontzientziazioa, bai eta erakundeen gaitasun zuzendua ere, hobetu izango dira klima-aldaketa txikitze eta klima-aldaketara egokitzeko, dituen eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.
- ✓ Bete izango da Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak hartutako 2020rako 100.000 milioi dolar bildu eta banatzeko konpromisoa, eta garapen-bidean dauden herrialdeek klima arintzeko neurriak arduraz aplikatu ahal izango dituzte.
- ✓ Gutxien garatutako herrialdeak eta uharte-estatu txikiak klima-aldaketaren plangintzari emandako babesaz baliatuko dira, bereziki emakumeen, gazteen eta pertsona kalteberen premiak kontuan hartuta.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Euskadin** biztanle bakoitzeko unitateen **berotegi-efektuko gasen guztizko emisioak 10,2 tona** CO2ren baliokideak izan ziren 2010ean, eta **8,89 tonaren** baliokidera murriztu dira 2018an.
- + **Espainiaren** kasuan, **emisio** horiek murriztu egin dira, 2015ean **7,45 tona** izatetik 2019an **6,86 tona** izatera.
- Zuzenean hondamendiengatik **hildako emakumeen** kopurua 100.000 biztanleko ez da jaitsi **Euskadin** 2010-2019 urteetan (**0,09**).
- Zuzenean hondamendiengatik **hildako pertsonen** kopuruak 100.000 biztanleko gora egin du **Espainian**, 2015ean **0,17** izatetik 2018an **0,22** izatera.

➔ Ekin diezaiogun!

Erakutsi iezaiezu ikasleei munduko mapa bat, herrialde bakoitzeko klimarekin lotutako erronka eta lorpen nagusietako batzuk ageri dituen. Baliabideen datu-base hauetako bat erabil dezakezu:

<https://earthobservatory.nasa.gov/global-maps>


<https://www.oce.global/es/ressources/enseignants>

<https://www.ipcc.ch/languages-2/spanish/ipcc-en-espanol-publications/>

<https://www.iberdrola.com/sostenibilidad/paises-mas-afectados-cambio-climatico>

Presta itzazue klima-aldaketa arintzeko edo eskolan hartara egokitzeko egin daitezkeen aldaketak adierazten dituzten kartelak eta mezuak. Bana itzazu ikasleak taldeetan, eta eska iezaiezu beren inguruko kutsadura saihesteko egunero egin ditzaketen gauzak idazteko. Ideiak ikasgelan erregistratu litezke, ikasleek hurrengo egunetan eta asteetan gogora ditzaten. Landa itzazu zuhaitzak, batez ere hosto erorkorrekoak, sustrai-sistema mugatua dutenak, eguzki-argia bete-betean jasotzen duten leihoetatik hurbil edo herriko espazio irekietan, udan tenperatura erregulatzen laguntzeko (egokitzapena).

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





14. Helburua: Itsaspeko Bizitza

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu iraunkorrean zaintzea eta erabiltzea.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **14. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **itsaspeko bizitzari** buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. **Ustiapen jasangarriaren** definizio bat proposatzea: *“Esaten da gizakiak baliabide bat ustiatzen duela (animalia, landarea edo bestelakoa), bere bizi-baldintzak hobetzeko onura dakarkionean (adibidez: arrantza, nekazaritza, etab.). Ustiapen jasangarria da jarduera horrek oraingo beharrak asetzen dituenean, etorkizuneko beharrak arriskuan jarri gabe”* – Eztabaida ezazu ikasleekin definizio hori.
3. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu?

Helburua da igortzen dituen mezuak identifikatzeko gai izatea: ozeanoen kontserbazioa, hondakinen kudeaketa, erabilera jasangarriarekiko errespetua, etab. Utz iezaezu hitz egiten eta bultza itzazu **denen artean gogoeta egitera**.

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 14. Helburua “Itsaspeko Bizitza”: **GJH 14 | Itsaspeko Bizitza**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Kezkatzen al gaitu helburu honek gure inguruan, kostaldeko eskualde gisa? Nola?
- Ozeanoak behar al ditugu bizitzeko? Zergatik?
- Uste duzu ahal den guztia egiten ari garela ozeanoa babesteko? Bai/Ez? Adibideak jarri.
- Beren ustez, eguneroko bizitzan zer hobetu daiteke ozeanoa hobeto errespetatzeko? (Hondakinak hondartzan eta itsasoan, estoldetan, etab.).

Ikus ditzagun xehetasunak

Gure ozeanoen jasangarritasuna arrisku larrian dago honako hauen ondorioz: kutsadura plastikoa/itsasokoa, ozeanoaren berotzea, eutrofizioa, azidotzea eta arrantzaren kolapsoa. **3.000 milioi lagun** baino gehiago ozeanoen mende daude bizirik irauteko. Munduko **herrialdeen ia erdiek** ekimen espezifikoak bultzatu zituzten artisau-arrantzaleei laguntzeko. Eremu hilak (itsas bizitzari eusteko behar adina oxigeno ez duten urak) erritmo kezagarrian ugaritzen ari dira: **400** ziren 2008an, eta **700**, berriz, 2019an. Biodibertsitatearen funtsezko itsas eremuen **erdiak baino gehiago** ez daude babestuta. Batez beste, ikerketarako aurrekontu nazionalen **% 1,2** soilik bideratzen da ozeano-zientzietara.

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Hemendik 2025era itsas-kutsadura murriztea, gizakiek lehorrean egindako jardueretatik baitator kutsaduraren zati handi bat.
- ✓ Legez kanpoko arrantza, gehiegizko arrantza eta bestelako arrantza-jardunbide suntsitzaileak debekatzen dituzten legeak promulgatzea.
- ✓ Ozeanoak azidotzearen eraginak murriztea, baita maila guztietan lankidetza zientifiko handiagoa martxan jarri ere.
- ✓ 2020tik aurrera, kostaldeen eta itsas-eremuen % 10 gutxienez kontserbatzea.
- ✓ 2020tik aurrera, arrantzari emateko dirulaguntza mota batzuk debekatzea, ahalmenen gaineko arrantza eta gehiegizko arrantza ahalbidetzen dituztelako; kentzea, halaber, legez kanpoko arrantza, aitortu gabekoa eta arautu gabekoa ahalbidetzen duten dirulaguntzak; eta mota horretako dirulaguntza gehiago ez sortzea.
- ✓ Areagotzea garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiek eta aurrerapen txikieneko herrialdeek beren itsas balia bideak iraunkortasunez erabiltzean lortzen dituzten irabazi ekonomikoak, bereziki, arrantzaren, akuikulturaren eta turismoaren kudeaketa iraunkorraren bidez lortzen dituztenak.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Espainia** osoan, biologikoki maila jasangarriak dituzten **arrain-populazioen** gutzitiko harrapaketak murriztu egin dira, 2015ean **971.489 tona** pisu bizi izatetik 2018an **917.012 tona** izatera.
- + **Espainiako itsas-eremu babestuak** 2016an **84,4 km²** izatetik **131,23 km²** izatera pasa dira 2019an.
- **Espainiako** itsas eremuei dagokienez, **eremu babestuen** estaldura oso urrun dago oraindik kostaldeko eta itsasoko eremuen gutxieneko **% 10**etik.
- Espainian ez dago datu eguneraturik **itsas kutsaduraren** bilakaerari eta **ozeanoen** azidotzeari buruz.

➔ Ekin diezaiogun!

Bana itzazu ikasleak talde txikietan eta eska iezaiezu ozeanoa babesteko egin ditzaketan 5 ekintza zehatzen zerrenda egiteko (hondartzak garbitu maite dituzten pertsonekin/komunitatearekin, gaia azaltzeko hitzaldi txiki bat antolatu, gaiari buruzko marrazkien erakusketa, etab.). Saia zaitez gutxienez puntu bat ekintza zehatz bihurtzen.

Bana itzazu ikasleak 4 talde txikitan, "ozeanoen arazoei" buruz ikertzeko. Talde bakoitzak arazo jakin bati buruzko informazioa bilduko du Internet erabiliz, eta, gero, aurkezpen bat egingo du gainerako ikaskideen aurrean. Ikasleek honako arazo hauei buruz ikertzea proposatuko da:


Gehiegizko arrantza: Zertan datza? Zer ondorio ditu? Zer neurri proposatzen dituzu itsasoko bizitza babesteko? Gako-hitzak: legez kanpoko arrantza, arrantza jasangarria, nazioarteko urak, arrantza-kuota, artisau-arrantza.

Kutsadura: Zein dira ozeanoen kutsatzaile nagusiak? Zer ondorio ditu kutsatzaile mota bakoitzak? Zer neurri proposatzen dituzu ozeanoetako kutsadura murrizteko? Gako-hitzak: metal astunak, legez kanpoko isurketak, hondakinen kudeaketa, material biodegradagarriak.

Klima-aldaketa: Zer ondorio ditu ozeanoen tenperatura igotzeak? Zer ondorio ditu CO₂ handitzeak? Zer neurri proposatzen dituzu klima-aldaketaren eragina murrizteko? Gako-hitzak: ozeanoen azidotzea, material biodegradagarriak.

Kostaldean eraikitzea: Zer-nolakoak dira kostaldean eta itsasoan egin ohi diren eraikinak? Zer ondorio negatibo dituzte itsasoko bizitzan? Zer neurri proposatzen dituzu kostaldeak babesteko? Gako-hitzak: dikeak, petrolio-plataformak, Kostaldean Legea, babes-eremuak.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



15. helburua:

Lehorreko Ekosistemetako Bizitza

Basoak modu jasangarrrian kudeatzea, desertizazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiaraztea eta egoera alderantzikatzea, eta biodibertsitate-galera geldiaraztea.

Saioa hasteko, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak labur-labur aurkez ditzake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **15. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **biodibertsitateari** buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: *"Biodibertsitatea, dibertsitate biologikoaren eramailea, Lehorreko bi-ziaren aniztasunari eta aldakortasunari dagokio, oro har"*.
3. Ikasleekin identifikatzea zein diren ekosistemen arloan betetzen ari ez diren **oinarrizko pre-mi**ak: basoen kudeaketa jasangarria, habitat naturalen desertizazioaren eta degradazioaren aurka borrokatzeko neurriak, ezkutuko ehiza eta espezie babestuen trafikoa saihesteko eta espezie exotiko inbaditzaileak lehorrean sartzea saihesteko ahaleginak.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoe-ta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu?

Bultza itzazu hausnartzera biodibertsitatea galtzeak eta desagertzeak izan ditzakeen ondorioez, toki mailan bakoitzaren komunitateetan eta maila globalean munduan.

- Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 15. Helburua "Lehorreko Ekosistemetako Bizitza": **GJH 15 | Lehorreko Ekosistemetako Bizitza**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoe-ta egitera:

- Helburu honek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu nahita helburu hau betetzen?
- Zer gertatzen da habitata gehiegi ustiatzeak edo suntsitzeak animalien edo landareen popula-zio bati kalte egiten dionean?
- Gure ekosistemen kontserbazioa bermatzeak, biodibertsitatea barne, handitzen al du gure komunitateen garapen jasangarrirako funtsezkoa dena emateko gaitasuna?
- Eztabaida eta gara ezazu honako baieztapen hau: "Biodibertsitatearen kontserbazioak erren-tagarria izan behar du". GJH honek kontrakoa iradokitzen du. Zer deritzozu?

Ikus ditzagun xehetasunak

Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen (IUCN) zerrenda gorrian ebaluatutako espezieen **laurdena baino gehiago** galzorian daude (anfibioen % 41, koniferoen % 34, koralezko arrezifeen % 33, ugaztunen % 26, hegaztien % 14). IUCNren zerrenda gorriak **134.400** ugaztun, hegazti, anfibio, arzei-fe-koral eta koniferoen **espezie** baino gehiagori buruzko datuak erregistratzen ditu. **37.400 espezie** bai-no gehiago galzorian daude. Baso-kudeaketa jasangarrian aurrerapenak lortu dira, baina munduak **100 milioi hektarea** baso galdu ditu bi hamarkadatan (2000-2020). Biodibertsitatearen funtsezko eremuak babesteko aurrerapenak gelditu egin dira azken 5 urteetan. Eremu babestuek estalitako biodibertsita-tearen funtsezko eremu bakoitzeko (2021) munduko batez besteko ehunekoa % 43koa da lehorrean, % 42koa ur gezatan eta % 41ekoa mendian. Ia herrialde guztiek onartu zituzten legeak espezie exotiko inbaditzaileak prebenitzeko edo kontrolatzeko. Espezie exotiko inbaditzaileek kalte egiten diote bertako biodibertsitateari, eta munduko ekonomiari milaka milioi dolar kostatzen zaizkio urtean.

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Mundu osoko basoei onura ekarriko diete 10 urte baino gehiagoko kudeaketa hobeak eta basoberritze-lanak.
- ✓ Desertizazio-joerei aurka egin eta alderantzikatu egingo dira, lehorreak eta uholdeek kaltetu-tako lur eta lurzoru degradatuak lehengoratzuz.
- ✓ Mendiko ekosistemak eta biodibertsitatea kontserbatuko dira, haien onurek garapen jasan-garriari lagun diezaioten.
- ✓ Habitat naturalak asko hobetu izango dira, degradazioa eta biodibertsitatearen galera murriz-teko eta arriskuan dauden espezieak ez desagertzeko premiazko ekintzaren ondorioz.
- ✓ Baliabide genetikoak eta haien onurak zuzen banatuko dira.
- ✓ Ezkutuko ehizari eta espezie babestuen trafikoari amaiera eman izango zaie legez kanpoko basa-produktuen eskariaren eta eskaintzaren aurka borrokatuz eta tokiko komunitateei la-gunduz, bizirauteko aukera jasangarriak bila ditzaten.
- ✓ Espezie exotiko inbaditzaileak lurrean eta uretan, eta haien inpaktuak neurri handi batean murriztu izango dira, gutxienez 10 urtez ahalegin handiagoa egin ondoren espezie horiek ez sartzeko eta kontrolatzeko.
- ✓ Ekosistemen eta biodibertsitatearen balioak nazioko/tokiko plangintzan gutxienez 10 urtez txertatzeak izan dituen onurak ikusiko ditugu, bai eta horrek pobrezia murrizteko izan dituen ondorioak ere.
- ✓ Diru gehiago liberatu izango da biodibertsitatearen eta ekosistemen kontserbaziorako eta erabi-lera jasangarrirako, batez ere basoak kudeatzeko eta haien babesa eta basoberritzea sustatzeko.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Espanian baso-kudeaketa jasangarria** planifikatzeko tresna indarrean duen baso-azalera handitu egin da, 2015ean % **16,58** izatetik 2018an % **18,48** izatera.
- + Espainian merkaturatutako **ezkutuko ehizatik** edo **legez kanpoko trafikotik** etorritako basa-flora eta -faunaren espezieen proportzioa jaitsi egin da, 2016an % **0,35** izatetik 2018an % **0,28** izatera.
- **Espanian**, 2015-2018 urteetan ez du aldaketa nabarmenik izan ez **baso-azalerak** guztizko azalerari dagokionez, ez **lur degradatuaren proportzioak** guztizko azalerari dagokionez.
- **Espaniak** oraindik ez du biodibertsitatea sartu bere kontabilitateko eta txostenen aurkezpeneko sistema nazionalan, **Ingurumeneko eta Ekonomiako Kontabilitate Sistemen inplementazio gisa definituak**.

➔ Ekin diezaiogun!

Behar bezala balorizatzeko eta gure inguruko elementu naturalak berrerabiltzeko, proposa iezaiezu ikasleei, adibidez, ongarria, lurrustela eta adar-ezpalak egitea lurzorua babesteko eta urari eusteko. Irakats iezaiezu ikasleei bertakoak ez diren landare-material inbaditzailez egindako altzariak edo bestelako gaiak identifikatzen eta saihesten. Zer biodibertsitate-mota duzu zure eremuan? Egin ezazu bilaketa hori jakiteko! Bultza itzazu ikasleak biodibertsitatea bilatzeko formulario bat prestatzera eta betetzera. Zure ikastetxeak ez badu lorategirik edo kanpoko espazio egokirik, ikastetxetik kanpoko txango edo jarduera baten testuinguruan koka dezakezu jarduera horietakoren bat.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



16 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK



16. helburua:

Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak

Gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak sustatzea.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labur-labur aurkez dizake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **16. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **bakeari** eta **justiziari** buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dieten gogora galdetuz.
2. Definizioetako bat proposatzea: "**Bakea** ez da soilik gerrarik edo indarkeriazko gatazkarik eza, *gizarte baketsuak pertsona guztien eskubide indibidualak eta kolektiboak bermatu behar ditu*". "**Justizia** ekitatea administratzeko teoria juridikoa edo filosofikoa da". "**Justizia sozialak** gizaki bakoitzak *gizarte jakin batean dituen eskubideak eta betebeharrak berdintasunez errespetatzea sustatzen du*".
3. Ikasleekin identifikatzea bakeari eta justiziari dagokienez betetzen ari ez diren **oinarrizko pre-miak** zein diren: indarkeria-mota guztiak eta haiekin lotutako heriotza-tasak murriztea; haurren abusua, esplotazioa, trafikoa eta tortura; guztiok justizia izateko aukera berdinak izatea; ustelkeria-praktikak murriztea...
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.


Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu?

Bultza itzazu gizarte zuzen eta baketsuek pertsona guztien garapen indibidual eta kolektiborako dituzten onurei buruz hausnartzera, bai eta politika ez-diskriminatzaileak sustatzeak eta aplikatzeak garapen jasangarrian nola lagun dezakeen aztertzerare.

-  Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 16. Helburua "Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak": **GJH 16 | Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Helburu honek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu nahita helburu hau betetzen?
- Zure ustez, zergatik gertatzen dira egoera ez-baketsuak edo gatazkatsuak?
- Nola berma dezakegu parte-hartze inklusiboa erabakiak hartzeko orduan maila guztietan?
- Zein dira gure erkidegoan parte-hartze publikorako aukera onenak bake- eta justizia-helburu hori lortzeko?

Ikus ditzagun xehetasunak

Erabakiak hartzeko orduan emakumerik ez egoteak mugatu egiten ditu pandemiari erantzuteko neurrien eta susperraldirako premiazko beste ekimen batzuen irismena eta eragina, bai eta ekonomia eta gizartea biziberritzeko aukerak ere. Emakumeak kanpo-gaietarako, defentsarako, finantzetarako eta giza eskubideetarako gobernu-batzordeen **% 18**an bakarrik dira buru. Pandemiak areagotu egiten du haurren esplotazio-arriskua, pertsonen salerosketa eta haurren lana barne. Pertsonen salerosketaren **3 biktimatatik 1** haurra izan zen (2018). Haurren lana **160 milioira** igo zen (2020), lehen igoera bi hamarkadatan. 2020an, Giza Eskubideen **331 defendatzailearen** hilketak salatu ziren **32 herrialdetan, % 18**ko igoera 2019tik. **82 herrialdek** soilik dituzte nazioarteko arauak (2020) betetzen dituzten Giza Eskubideen erakunde independente nazionalak. Eroskeria gutxienez bost aldiz handiagoa da diru-sarrera txikiko herrialdeetan (**% 37,6**) diru-sarrera handikoetan baino **% 7,2**).

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Indarkeria eta harekin lotutako heriotza-tasak txikitu izango dira leku guztietan.
- ✓ Haurren kontrako abusua eta kaltea amaitu izango dira leku guztietan.
- ✓ Estatuko eta nazioarteko legeak zuzen aplikatzeak guztiontzako justizia bermatuko du.
- ✓ Legez kanpoko diruaren eta armen fluxua asko murriztu izango da, eta lapurtutako ondasun gehiago itzuli izango dira eta krimen antolatuari aurre egin izango zaio.
- ✓ Ustelkeria eta eroskeria asko murriztu izango dira.
- ✓ Erakunde guztiak garatu izango dira, indartsuagoak, eraginkorragoak eta arduratsuagoak izateko.
- ✓ Erabakiak hartzea harkorragoa, inklusiboagoa, parte-hartzaileagoa eta ordezkatzaileagoa izango da.
- ✓ Mundu guztiak izango du legezko identitatea eta jaiotza guztiak erregistratuta egongo dira.
- ✓ Lege nazionalak eta nazioarteko akordioek bermatu izango dute pertsona guztiek informazioa eskuratzeko aukera izatea eta oinarritzko askatasunak babestea.
- ✓ Indarkeria, delinkuentzia eta terrorismo gutxiago izango da, herrialdeek gaitasun instituzionala sortzeko elkarrekin egindako lanari esker.
- ✓ Garapen jasangarrirako lege eta politika bidezkoagoak egongo dira.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + **Espanian**, 5 urtetik beherako haur guztiek (% 100) beren **jaiotza erregistratua** dute agintari zibil baten aurrean.
- + **Espanian**, funtzionario publiko batekin guxtienez kontaktu bat izan duten eta funtzionario publiko bati eroskeria ordaindu dioten edo funtzionario publiko batek eroskeria eskatu dien pertsonen proportzioa nahiko txikia da aurreko urtean (% 0,0003 2018an).
- **Euskadin**, bizi diren lekuan **bakarrrik ibiltzean seguru** sentitzen diren 16 urtetik gorako pertsonen proportzioa jaitsi egin da % 76,38tik (2014) % 69,47ra (2019). Errealitate horrek **emakumeei** eragiten die bereziki, haien kasuan % 65,61etik (2014) % 55,38ra (2019) jaitsi baita.
- **Espanian** handitu egin da **pertsonen salerosketaren biktimen** kopurua (sexu-esplotazioa, bortxazko lana, morrontza eta esklabotza, eta beste helburu batzuk): 2015ean 100.000 biztanleko 267 izatetik 2019an 523 izatera.

➔ Ekin diezaiogun!

Bila itzazu egoera baketsuak eta ez-baketsuak erakusten dituzten hainbat argazki. Erakutsi ikasleei eta eska iezaiezu beren ustez irudia deskribatzen duten 1-3 hitz idazteko. Eska iezaiezu, halaber, ikaskide batekin eztabaidatzeko zer sentitzen duten irudi horietako bakoitza ikustean, eta, gero, ikaskideekin parteka ditzatela beren ideiak. Nabarmendu ikasleei egoera baketsuak eta ez-baketsuak deskribatzeko erabilitako hitzak.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ale bat bana dezakezu. Uste dute gaur egun betetzen direla adierazpen horretan jasotako artikulua guztiak, leku guztietan eta berdinean? Galde iezaiezu ikasleei indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa eta abar sortzeko egon daitezkeen ohiko kausei buruz. Saia zaitetz gainerako GJHeekin lotu ditzaten eta nabarmendu ezazu oso garrantzitsua dela denok justizia izateko aukera berdinean izatea.

UNESCO Etxearen “Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan – Zu ere parte zara!” unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.





17. helburua: Helburuak lortzeko Itunak

Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna suspertzea.

Saioa hasteko, *2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako 17 helburuak* labor-labor aurkez ditzake dinamizatzaileak.

Ondoren, eguneko helburua aurkeztuko dugu: **17. GJH**

Dinamizatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Ikasleek **aliantzen** kontzeptuari buruz duten ezagutza-maila ebaluatzea, zer ekartzen dien gogora galdetuz.
2. Definizio bat proposatzea: *Aliantza akordio edo batasun bat da, non aldeek lankidetzan aritzea adosten duten elkarren interesak sustatzeko. Gizarteko eragileen arteko aliantzak ezinbestekoak dira helburuak betetzeko eta etorkizun komuna eraikitzeko.*
3. Ikasleekin identifikatzea zein diren aliantzen mailan betetzen ari ez diren **oinarrizko premiak**: baliabideen mobilizazioa, finantza-mobilizazioa barne; teknologia transferentzia eta hedatzea; nazioarteko gaitasunak garatzea edo nazioarteko merkataritza.
4. Ikasleekin identifikatzea zer beste GJH dauden helburu honekin zuzenean lotuta, eta zergatik.

Honako hauekin du lotura:



Hausnar dezagun elkarrekin

Irudi hau aztertuko dugu ikasleekin, gogoeta batzuk iradokiz: Zer transmititzen digu?

Bultza itzazu aliantzen esanahiari buruz hausnartzera. Zer suposatzen dute eurentzat? Nola lagun diezagukete helburu komunak lortzen?

- Laguntza-material gisa, dinamizatzaileak 2 minutuko bideo hau ikus dezake, modu erraz eta motibagarrian azaltzen baitu Garapen Jasangarrirako 17. Helburua "Helburuak lortzeko Itunak": **GJH 17 | Helburuak lortzeko Itunak**



Ikasleak animatuko ditugu bideoaren eta, oro har, gaiaren inguruan adieraztera eta gogoeta egitera:

- Helburu honek eragiten al dio gure komunitateari? Ba al duzu gai honekin lotutako adibiderik? Nola lagun dezakegu nahita helburu hau betetzen?
- Zer ulertzen duzu "garapenerako lankidetz" kontzeptuaz?
- Nola handitu daiteke lankidetz finantzen, teknologiaren, gaitasunen garapenaren edo merkataritzaren arloetan?
- Gaitasunak garatzea da helburu honen oinarria. Gaitasunen zer garapen mota izango litzateke erabilgarriena gure komunitatean, eta zein izango litzateke hori lortzeko modurik onena?

Ikus ditzagun xehetasunak

Garapenerako Laguntza Ofizial (GLO) garbiak **161.000 milioi** dolarreko errekorra lortu zuen 2020an, hau da, emaileen BPGd-ren **% 0,32**, baina oraindik ez zuen lortu BPGd-ren **% 0,7**ko helburua. Zuzeneko Inbertsio Atzerritarren (ZIA) korranteak **% 40** jaitsi ziren, **1,5 bilioi** dolarretik **1 bilioi** dolar baino gutxiagora. Irargapenei aurre eginez, diru-sarrera txiki eta ertaineko herrialdeetarako diru-bidalketen korranteak **540.000 milioi** dolarrera iritsi ziren 2020an, 2019ko maila baino **% 1,6** soilik gutxiago. Biztanleria globalaren ia erdiak **-3.700 milioi** lagunek- oraindik ez dute Internetik, pandemian konektibitate-premia handia izan arren. Diru-sarrera txikiak eta ertain-txikiak dituzten herrialdeen **% 63k** finantzaketa gehigarria behar dute datuetan eta estatistiketan, pandemiak dakartzan erronkei aurre egiteko.

2030ean lortu beharko liratekeen funtsezko zifrak aurkeztu eta ikasleekin hausnartuko ditugu:

- ✓ Nazioarteko finantza-laguntza handiagoa izango dute garapen-bidean dauden herrialdeek, bai eta tokiko zerga-bilketa hobetzeko laguntza ere.
- ✓ Herrialde garatuek erabat beteko dituzte "Garapenerako laguntza ofiziala" (GLO) emateko konpromisoak, beren "errenta nazional gordinari" (ENG) dagokionez, gutxien garatutako herrialdeei laguntzeko, eta beste finantzaketa-iturri batzuk ere aztertuko dituzte laguntzeko.
- ✓ Zorra arintzeak eta berregituratzeak lagundu egingo die garapen-bidean dauden herrialdeei epe luzeko zorraren jasangarritasuna lortzen eta herrialde pobreen zorpetzea murrizten.
- ✓ Inbertsioak sustatzeak onura ekarriko die herrialde pobreei.
- ✓ Iparralde-Hegoalde, Hegoalde-Hegoalde lankidetz handiagoa izango da, eta zientziaren, teknologiaren, berrikuntzaren eta ezagutzen trukearen inguruko gaitasunak garatuko dira, bereziki teknologia ekologikoei eta informazioaren teknologiei dagokienez, bai eta GJHen aplikazioari dagokionez ere.
- ✓ Arauetan oinarritutako merkataritza-sistema egongo da, irekia eta bidezkoa, herrialde guztiei mesede egingo diena, batez ere pobreei, eta haien esportazioak bikoiztu egin beharko lirateke 2020tik aurrera.
- ✓ Munduko ekonomiaren funtzionamendua hobetu egingo da, politikak ongi koordinatuta daudela, logikoak direla eta GJHekin bat datoze la ziurtatuz.
- ✓ Herrialde bakoitzaren espazioa errespetatuko da pobrezia desagerrarazteko eta garapen jasagarria lortzeko.

📍 Eta zer gertatzen da gure inguruan?

- + Aurreko hiru hilabeteetan **Internet** erabili duten 16 eta 74 urte bitarteko pertsonen proportzioa igo egin da **Euskadin**, 2010ean **% 58,43** izatetik 2019an **% 91,68** izatera.
- + **Espanian, gobernuaren diru-sarreraren** guztizkoa igo egin zen BPGd-rekiko, 2015ean **% 38,71** izatetik 2019an **% 39,19** izatera.
- Espainiak atzerrian egindako Zuzeneko Inbertsio Atzerritarraren (ZIA) transakzioak, garapenerako laguntza ofiziala eta Hegoalde-Hegoalde lankidetzak murriztu egin dira, 2015ean **20.394 milioi euro** izatetik 2019an **11.877 milioi euro** izatera.
- **Espainiako Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) ekarpenak**, proiektu bakoitzeko eragileen arabera **azpiegituran** oinarritutako **aliantza publiko-pribatuei** esleitutakoak, pixka bat jaitsi ziren 2016/2017 aldian, **7.012.695 eurotik 6.994.651 eurora**.

➔ Ekin diezaiogun!

Eska iezaiezu ikasleei mapa mental bat edo armiarma-diagrama bat sortzeko GJHei buruz, hasierako ideiak bilduta. GJHei buruz dakiten guztia idatziko dute bertan, bai eta helburu horiek zer arazo jorratu nahi dituzten ere. Honako galdera hau egin dezakezu: zer kolore, sinbolo edo irudi datorkizue burura GJHei edo helburu espezifikoaren bati (edo haiekin loturiko arazoei) buruz hitz egiten entzuten duzue? Gehitu ideiak mapa mentalean.

Bultza itzazu etenik gabe pentsamendu globala eta tokiko ekintza zure eguneroko lanean, eta motiba itzazu ikasleak GJHetan parte hartzera beren tokiko eremuan. Aukeratu ezazu ikasle bat edo ikasle-talde bat GJH bakoitzeko (dituzten ezagutzen eta interesaren arabera), eta, gero, balora ezazu nola elkartu daitezkeen, GJH guztiei buruzko ikaskuntzan aurreikusitako ahalik eta ekintza gehien inplementatu ahal izateko.

UNESCO Etxearen "Garapen Jasangarrirako helburuak ikasgelan - Zu ere parte zara!" unitate didaktikoan dauden baliabide pedagogikoak erabil ditzakezu saioa dinamizatzeko laguntza-material gisa.



ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA INTERESEKO DOKUMENTUAK

Acciona (2020). *Energías renovables*: https://www.acciona.com/es/energias-renovables/?_adin=02021864894

Acciona (2020). *La ciudad sostenible*: https://www.sostenibilidad.com/construccion-y-urbanismo/la-ciudad-sostenible/?_adin=01833301559

Comunidades Europeas (2007). *Competencias clave para el aprendizaje permanente. Un marco de referencia europeo*: <https://www.educacionyfp.gob.es/dctm/ministerio/educacion/mecu/movilidad-europa/competenciasclave.pdf?documentId=0901e72b80685fb1>

Economipedia (2021). *Diccionario económico*: <https://economipedia.com/definiciones>

Emakunde (2019). Berdintasunerako neurriei eta berdintasunerako klausulei buruzko terminoen glosarioa: <https://www.emakunde.euskadi.eus/politika-publikoak/-/informazioa/klausulak-laguntza-glosarioa/>

EUSTAT. Euskadiko 2030 Agendako GJHen adierazleak. <https://eu.eustat.eus/indicadores/ods.html>

NBE Emakumeak eta Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Saila (2021). *El progreso en el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible – Panorama de Género 2021*. <https://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2021/09/progress-on-the-sustainable-development-goals-the-gender-snapshot-2021>

FAO (2020). *Hambre e inseguridad alimentaria*: <https://www.fao.org/hunger/es/>

Hegoa (2000). *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. <https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/eu/publications/255>

INE (2021). *2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak*: <https://www.ine.es/dyngs/ODS/es/index.htm>

Nazio Batuak (2021). *Informe de los Objetivos de Desarrollo Sostenible*. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/progress-report/>

Nazio Batuak (2019). *¿Qué es la desigualdad?*: <https://news.un.org/es/story/2019/07/1459341>

Nazio Batuak (2020). *Objetivos y metas de Desarrollo Sostenible*: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals/>

OME (2014). *Documentos Básicos*. Constitución de la OMS (48. edizioa). <https://www.who.int/es/about/governance/constitution>

OME (2019). Agua: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/drinking-water>

2030 Agendarako Estatu Idazkaritza. *Informe de Progreso 2021 y Estrategia de Desarrollo Sostenible 2030*. <https://www.mdsocialesa2030.gob.es/agenda2030/documentos/ip2021-castellano.pdf>



un
UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN